

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

5605

EBAZPENA, 2021eko urriaren 18koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen, deitzen eta argitaratzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko dirulaguntza-programa (PREE 5000) arautzen duten oinarriak. Programa hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko Birgaitzeko eta Berroneratzeko Planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programan sartuta dago.

EEEri, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa bera, eskumena eman zaio jarduketak gauza ditzan aurrezpen eta efizientzia energetikoa, baliabide energetiko berriztagarriak eta dibertsifikazio energetikoa bultzatzeko eta azpiegitura energetikoak sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Ildo horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian jasotako helburuak betetzeko. Jarduketa horien artean aipatzekoak dira zenbait laguntza-programa, izan ere, programa horien bidez efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatu nahi baita jarduera-sektore guztietan.

Ekainaren 29ko 691/2021 Errege Dekretuaren bitartez (2021eko abuztuaren 4ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 185. zk.) arautzen dira jadanik dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko jarduketetarako eman beharreko dirulaguntzak, Erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programa egikarituta (PREE 5000), eta baita autonomia-erkidegoei zuzenean ematea ere. Programa hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko Birgaitze eta Berroneratzeko Planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programan sartuta dago. Bada, errege-dekretu horren bitartez ezarri ziren, halaber, erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako energia birgaitzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

691/2021 Errege Dekretuaren 9. artikuluko 2. atalean ezarritakoa betez, EEEren zuzendari nagusiak Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari formalki jakinarazi zion Euskal Autonomia Erkidegoari emandako dirulaguntza espresuki eta argi eta garbi onartzen zuela, errege-dekretu horri erabat lotuta egonik 1.612.500 euro dena.

Programa hau egikaritzeak Euskal Autonomia Erkidegoari lagunduko dio Europar Batasuneko araudian ezarritako ingurumen- eta energia-helburuak lortzen, dauden eraikinak eraberritzeko jarduketak eginez, eraikin horien erabilera eta eraikinen titularren izaera juridikoa edozein izanda ere, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoko emisioen murrizketa bultzatuko duten jarduketak, 2018/2002 Zuzentarauak berrikusitako 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikuluko ezarritakoari jarraikiz, energia-aurrezpenaren bidez, energia-efizientziaren hobekuntzaren bidez eta energia berriztagarrien aprobetxamenduaren bidez.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EEEko organo errektoreen funtzioak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoa betez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitze eta berroneratzeko planaren Birgaitzeko

eta erronka demografikoko programaren barnean hartutako Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko dirulaguntza-programari (PREE 5000) dagozkion deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea; horren edukia ebazpen honi lotu zaio eranskin gisa.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitze eta berroneratzeko planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programaren barnean hartutako Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko dirulaguntza-programari (PREE 5000) dagozkion oinarri arautzaileak onartzeko ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2021eko urriaren 18a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

ERANSKINA

**Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko
udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze
energetikoko programa
(PREE 5000 programa)**

Oinarriak



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko dirulaguntza-programa (PREE 5000), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitzeko eta berroneratzeko planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programaren barnean hartua.

1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren izaera

- 1.1. 2021eko abuztuaren 4an 185. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, *ekainaren 29ko 691/2021 Errege Dekretuaren bitartez arautzen dira dauden eraikinetarako birgaitze energetikorako jarduketetarako eman beharreko dirulaguntzak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitzeko eta berroneratzeko planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programaren barnean hartutako Erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programa egikaritzuz (PREE 5000), baita autonomia-erkidegoei zuzenean ematea ere (hemendik aurrera, «691/2021 ED»). Errege-dekretu horren bitartez ezarri ziren erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikorako laguntzak emateko oinarri erregulatzailak.*

Programa hori egikaritzeak lagunduko du Europako araudian ezarritako ingurumen- eta energia-helburuak lortzen, dauden eraikinak eraberritzeko jarduketak eginez, eraikin horien erabilera eta eraikinen titularren izaera juridikoa edozein izanda ere, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoko emisioen murrizketa bultzatuko dutenak, 2018/2002 Zuzentarauak berrikusitako 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikulua ezarritakoari jarraikiz, energia-aurrezpenaren bidez, energia-efizientziaren hobekuntzaren bidez eta energia berriztagarrien aprobetxamenduaren bidez.

Aipatzekoa da, gainera, 691/2021 EDaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako laguntza-programaren deialdia justifikatzen duten arrazoi eta helburuak erabat lerrokatuta daudela Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutakoekin. 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, energia-kontsumoan efizientzia gehitzekoa da, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produktiorako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentsia murriztuko denez.

- 1.2. Aipatutako 691/2021 EDaren bidez adostu da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitzeko eta berroneratzeko planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programaren barnean hartutako Erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programaren laguntzak zuzenean ematea autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei, ezarritako banaketa-irizpideei jarraikiz, 50 milioi euroko zenbatekoaz, dekretuaren II. eranskinean finkatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasurako (hemendik aurrera, «EAE») 1.612.500 euroko zenbatekoaz zehazki.

2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 EB Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatuko du programa hori, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barnean hartua baitago.

Horrenbestez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitzeko eta berroneratzeko Planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programaren barnean hartutako Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko dirulaguntza-programarako (PREE 5000) (hemendik aurrera, «Programa» edo «Laguntzen programa») zuzkidura ekonomikoa 1.612.500 euro izango da, Energiaren Euskal Erakundeko (hemendik aurrera, «EEE») aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituaren arabera.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Behin dagozkion zeharkako kostuak kenduta (% 3,60), laguntzen azken hartzaileei bideratutako gehieneko zenbatekoa **1.554.450 euro** izango da, hori guztia 3. Oinarrian adierazitako banakapenari jarraikiz.

- 1.3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, 2021. urterako EEEn Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eguneratzea onartu da, laguntza-programa hau horren barruan dagoelarik.

EEEn 2021erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.4. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.5. Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

Hala, laguntza horien azken hartzaileak enpresak badira, edo merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jardura ekonomiko bat egiten badute, eta energia-efizientziako neurrietarako inbertsioak egiteko eta energia berriztagarrietatik eratorritako energia sustatzeko estatu-laguntzei buruzko araudia aplikatu behar bazaie, 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen 651/2014 Erregelamenduan (EB) ezarritako betekizunak eta mugak ezarriko zaizkie, horren arabera laguntza kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen direlako Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz (aurrerantzean, «**651/2014 Erregelamendua**»), aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionalako zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsak egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

Xede horretarako, eta 651/2014 Erregelamendua 11. artikuluko a) letran ezarritakoa betez, Estatuak Europako Batzordeari bidali zion 691/2021 Errege Dekretuaren bitartez araututako Laguntzen programari buruzko informazio laburtua.

2. Laguntzen azken hartzaileak

- 2.1. (i) Programa honetan aurreikusitako laguntzen azken hartzaile izan daitezke, jarduketa diruz lagungarri mota bakoitzerako jarraian zerrendatzen diren subjektu guztiak, betiere egoitza fiskala Espainian badute, eta birgaitze energetikoaren eraginpeko eraikina EAEn badago:
 - a) Edozein erabileratarako diren egungo eraikinetako jabeak diren izaera pribatu edo publiko pertsona fisiko edo juridikoak.
 - b) Etxebizitza-erabilerako bizitegi-eraikinetako jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - c) Elkartutako eraikinen jabe diren jabeak, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak eta Jabetza Horizontalaren dagokion titulua sinatzen ez dutenak.



- d) Enpresa ustiatzaile, errentatzaile edo emakidadunak, jabetzarekin epe luzerako indarreko kontratu bidez kondizio hori egiaztatzen dutenak, kontratu horrek ahalmen espresua emango dielarik programan barne hartu beharreko jarduketako zaharberritze-obrei ekiteko.
- e) Energia-zerbitzuetako enpresak, edo energia-efizientziari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan definitutako energia-zerbitzuen hornitzaileak. Zuzentarau horren arabera aldatzen dira 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentarauak, eta indargabetzen dira 2004/8/EE eta 2006/32/EE Zuzentarauak, energia-auditoriei, zerbitzu-hornitzaileen eta energia-auditorien akreditazioari eta energia- hornikuntzaren efizientziaren sustapenari dagokienez.
- Onuradun izateko, jabetzarekin horretarako ezarrita duten kontratuaren arabera jardun beharko dute enpresa horiek eta oinarri hauetan bildutako jarduketan tipologiaren batean barne hartutako inbertsioak burutu, energia-zerbitzuetako enpresa gisa izandako jarduketa eta egindako inbertsioa akreditatuta beharko dutelarik.
- f) Toki-erakundeak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikulua arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikulua erreferentzia egiten dien administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionala.
- g) Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentaruak aldatzen duen eta elektrizitatearen barne-merkaturako arau erkideei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua arabera ere.
- (ii) Udalek, diputazio probintziales edo erakunde baliokideek, udalerrien mankomunitate edo elkarteek, eta administrazio publiko horiei lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeek eta erakunde publikoek, laguntzan azken hartzaile izateko aukera izango dute, energia birgaitzeko jarduketak egiteko ekimena sustatu eta kudeatzeko, pertsona fisiko edo juridikoen, publiko edo pribatuen, zerbitzu-sektoreko edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, Oinarri hauetan aurreikusitako jarduketa diruz lagungarriak gauza ditzaketen eraikinetako jabeen ordezkari gisa, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legearen 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako bete beharko delarik.
- (iii) Laguntzen azken hartzaileak pertsona fisikoak direnean, dela indibidualki, dela 2.1 oinarrizko b) edo c) letretan aurreikusitako erkidego bateko edo jabeen elkarte bateko kide direnean, nazionalitate espainola izan beharko dute, edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu kideetako batekoa edo Suitzakoa. Europako Erkidegoak ez diren atzerriarren kasuan, Espainian izan beharko dute legezko bizilekua.
- (iv) Azken hartzaileak pertsona juridikoak badira, behar bezala eraturik daudela akreditatu beharko dute, aplikatzeko den araudiaren arabera eta Oinarri hauetan ezarritako prozedurari jarraikiz.
- (v) Laguntzen azken hartzaileak izango dira, halaber, betiere Dirulaguntzei buruzko Legearen 11.3 artikuluan ezarritakoa betetzen badute, pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publikoak edo pribatuak, jabeekideen erkidegoak edo bereizitako beste edozein unitate ekonomiko edo ondare direnean, nortasun juridikoa izan gabe ere, proiektu, jarduerak edo portaerak gauza ditzaketanak edo dirulaguntza ematea dakarren egoeran daudenak.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2.2. Honako hauek ezin izango dira laguntzen azken hartzaile izan:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Erregelamenduen 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren bat betetzen ez dutenak (hemendik aurrera, «DEO»).

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharririk ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharririk izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

Azken hartzaileak egunean egon beharko du, halaber, Dirulaguntzei buruzko Legeko 13. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeari dagokionez, besteak beste, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta xede horretarako aintzat hartuko da azken hartzaileak, laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, administrazio-organo emaileari baimena ematen diola Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa zuzenean lortzeko ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

- b) Krisi-egoeran dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideetan xede horretarako egiten den definizioari jarraikiz (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).
- c) Aurretik eman zaien laguntza edo dirulaguntza ororen gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleitura ditzuten betebeharrak modutan bete ez ditzutelako.
- d) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresek.

2.3. Laguntzen azken hartzaileek jasotzen duten laguntzaren zenbateko osoa dagozkion jarduketara diruz lagungarriak ordaintzera bideratuko dute.

Arau hori aplikatuko da, halaber, pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publikoak edo pribatuak, jabeekideen erkidegoak edo bereizitako beste edozein unitate ekonomiko edo ondare direnean, nortasun juridikoa izan gabe ere, proiektu, jarduerak edo portaerak gauza ditzaketanak edo dirulaguntza ematea dakarren egoeran daudenak, dirulaguntzaren zenbatekoa eta obren kostua haietako kideen artean jasanarazi behar den alde batera utzita.

Dena den, haien kideetako bat Dirulaguntzei buruzko Legearen 13.2 artikuluan ezarritako debeku batean edo bat baino gehiagotan erortzen bada, jabe horri ez zaio esleitu jasotako laguntza horretatik esleitu litzaiokeen proportziozko zatia, eta zati hori gainerako kideen artean hainbanatuko da, betiere dagozkion erakundeak betetzen jarraitzen badu azken hartzailea izateko eskatutako betekizunak.

3. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko epea

Programa honetara bideratutako hornidura ekonomikoa **1.554.450 euro** da, EEEren aurrekontuetan horretarako ezarritako dagozkion kredituaren arabera.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 13an hasiko da, 08:00etan, eta haren indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada (2023ko abenduaren 31), eskaerak erregistratu ahalko dira behin-behineko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie, aldeztu aurreko laguntza-eskaeretan izaten diren ezespren edo errebokazioen arabera, aurrekontua askatu ahalko luketenak, edo deialdian aurrekontu berri bat sartzen bada. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebazten ez den arte.

Horrez gain:

- a) 691/2021 EDren 7. artikuluko 5. atalean adierazitakoarekin bat etorriz, Programaren aurrekontua zabaltzeko aukera izango da, aurrekonturik balego eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada.
- b) 691/2021 EDren 7. artikuluko 9. atalean adierazitakoarekin bat etorriz, eta errege-dekretu horren 13. artikuluko 8. atalean jasotako mugen arabera, Programa honi esleitutako aurrekontua murrizteko aukera izango da, 691/2021 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak, mugarrak eta helburuk betez.

Epeak zenbatzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jarduketa diruz lagungarriak eta laguntzen zenbatekoa

4.1. Programa honetan aurreikusitako **jarduketa diruz lagungarriak**, nahitaez, EAEko erroka demografikoko udalerrietako edozeinetan kokatutako eraikin edo etxebizitzetan gauzatu beharko dira.

Xede horietarako, erroka demografikoko udalerrak izango dira, 5.000 biztanlerainoko udalerrak ez-hiritarrak, baita 20.000 biztanlerainoko udalerrak ez-hiritarrak ere, baldin eta beren biztanle-entitate berezi guztiek, gehienez ere, 5.000 biztanle badituzte.

Udalerrietako biztanle kopurua zehaztearren, udal-errodan 2020ko urtarrilaren 1ean egindako berrikuspenaren ondoriozko biztanle kopuruen ofizialtasuna aitortzen duen abenduaren 15eko 1147/2020 Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko da aintzat. Biztanle-entitate bereziak izango dira izena eta 9 zifrako kodea EINen Nomenklatorrean jasota dutenak eta haien biztanle-kopurua agiri horretan argitaratutakoaren arabera zehaztuko da, aurreko paragrafoan aurreikusitako xedeetarako.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren «Hiri Eremuetako Atlas» argitalpenean ezarritakoari jarraikiz zehaztuko da udalerrak baten izaera «ez-hiritarra».

Aurreko 3. Oinarrian ezarritakoaren arabera laguntza-programa honek indarrean jarraitzen duen bitartean, geroago bi iturri ofizialetan argitara litezkeen berrikuspen eta eguneratzeen ondorioz erroka demografikoko betekizun horiek bete litezketen udalerrak berriak zerrenda horretara gainera litezke, bidezko bada.

Xede horietarako, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak bere egoitza elektronikoa argitaratuko du, informazio-xedeetarako eta aldeztu aurretik aipatutako argitalpen ofizialek baldintzatuta, dagozkion inbertsio diruz lagungarrien jomuga izan daitezkeen udalerrien zerrenda.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

4.2. Jarraian zerrendatzen direnak izango dira jarduketa diruz lagungarriak, eta III. eranskinean ezarritako betekizunak bete beharko dituzte:

- (i) EAEn dauden eraikin osoetako jarduketak, honako erabileren arteko bat edo bat baino gehiago duten eraikinetakoak:
 - a) Familia bakarreko etxebizitzako eraikinak;
 - b) Etxebizitzako bizitegi kolektiboko tipologiako eraikinak;
 - c) Beste edozein erabilerako eraikinak (administratiboa, sanitarioa, irakaskuntza-arlokoa, kulturala, eta abar), Eraikintza Antolatzeari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2.1 artikulua araututakoen artean.

4.3. Honako hauek ez dira jarduketa diruz lagungarriak izango:

- a) Eraikuntza berriko eraikinetan egindakoak;
- b) Zabalkuntza bat dakarten egungo eraikinetako esku-hartzeak, zeinetan eraikitako azalera edo bolumena gehituko den;
- c) Eraikinaren erabilera-aldaketa dakarten egungo eraikinetako esku-hartzeak.

4.4. Tipologia hauetako batean edo bat baino gehiagotan sartu behar dira jarduketa diruz lagungarriak, eta III. eranskinean bakoitzerako ezartzen diren eskakizun espezifikoak bete:

- a) Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea.
- b) Energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera berokuntzako, klimatizazioko, hozketako, aireztapeneko eta etxeko ur beroko instalazio termikoetan.
- c) Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.

4.5. Laguntza horien izaera pizgarria kontuan izanda, laguntzaren eskaeraren erregistro-daturen ondoren hasitako laguntzen azken hartzaileen jarduketak baino ez dira onartuko, eta ez da hautagarritzat hartuko aurretik fakturatua izan den jarduketari buruzko ezein kostu, alde batera utzi gabe eskaera aurkezteko edo dagozkion inbertsioak burutzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketei dagozkien kostuak, hala nola proiektua, memoria teknikoak, ziurtagiriak eta abar, diruz lagungarritzat hartu ahalko direlarik, alde aurretik fakturatua izan badira ere, betiere prestakuntza-jarduketa horiek 691/2021 Errege Dekretuaren 4. artikuluan indarrean hasteko ezarritako dataren (2021eko abuztuaren 5a) ondorengo data batean hasi badira.

Laguntza izaera pizgarri hori betetzeko xedearrekin, kontratazio publikoaren alorreko araudiaren eraginpeko azken hartzaileen kasuan, haiei dagozkien kostuen hautagarritasuna zehazteko erreferentzia-datatzat hartuko da dagozkion jarduketaren lizitazio-agirien argitaratze-data, eta alde aurretik fakturatutako ezein kostu ez da hautagarritzat joko, dagozkion paragrafoan zehaztutako prestakuntza-jarduketei dagozkien kostuei kalterik egin gabe.

4.6. Horrekin batera, honako eskakizun hauek bete beharko dira laguntzak emateko:

- a) Gaur egun dagoena eta 2007. urtea baino lehen eraikitakoa izan behar du eraikinak, eta ondasun higiezinaren datu katastralaren kontsulta deskriptibo eta grafikoaren bidez kontsultatuko da.
- b) Eraikinaren erabilerari dagokion laguntza aplikatzeko, etxebizitza-erabilerakoa edo beste erabilera batekoa den kontuan izanda, sestra gainean eraikitako azalera balioetsiko da, kontsulta katastral bidez justifikatuta. Ildo horretan, etxebizitza-erabilerako eraikintzat hartua izateko, sestra gainean eraikitako eraikin horren ehuneko hirurogeita hamar gutxienez erabilera konkretu horretara bideratu behar da. Kasu horretan, jarduketa egiten den gaineko azalera osoari



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

aplikatuko zaito laguntzaren zenbatekoa, erabilera osorik etxebizitza-erabilerara bideratutakoa ez izatea kontuan hartu gabe.

- c) Eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (2000/532/EB Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala alde batera utzita) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzen prestatuko da, betetze-eragiketak barne, hondakinak beste material batzuen ordean erabiltzeko moduan, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeko 8. artikuluan ezarritako hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik.
- d) Operadoreek hondakinen sorkuntza mugatu beharko dute eraikuntza eta eraispénarekin zerikusia duten prozesuetan, EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliz eta gaikako eraispén baliatuz substantzia arriskutsuen deuseztapen eta manipulazio segurua ahalbidetzeko, eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko materialak gaika deuseztatuz, eraikuntza- eta eraispén-hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz.
- e) Gainera, EAEn hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazitakoa hartu beharko da aintzat. Eraikinen diseinuetan eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babesteko dute, eta, bereziki frogatuko dute, ISO 20887 arauaren edo eraikinen egokigarritasun- edo desmuntatze-gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuen harira, baliabideen erabileran efizienteagoak izateko diseinatuta daudela, berrerabilera eta birziklatzea ahalbidetzeko desmuntagarriak, malguak eta moldaerazak direla.
- f) Birgaitze energetikoaren alorrean, neurri honetan aurreikusitako jarduketek garapenean erabiltzeko eraikuntza-osagai eta -materialak ez dute amiantorik edo oso substantzia kezagarriarik barne hartuko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 1907/2006 (EB) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimendu beharreko substantzien zerrendaren arabera. Substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzko Erregelamendu horrek (REACH) Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortzen du, 1999/45/EB Zuzentaraua aldatzen du, eta Kontseiluaren 793/93 Erregelamendua (EEE) eta Batzordearen 1488/94 (EB) Erregelamendua indargabetzen ditu, baita Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua eta Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EB eta 2000/21/EB Zuzentarauak ere.

- 4.7.** Laguntza-eskaera guztietan, laguntza-eskaeraren eraginpeko jarduketek lortu eta justifikatu beharko dute energia primario ez-berriztagarria % 30ean murriztea abiapuntuko egoeraren aldean, eta hori justifikatuko da aurkeztuz, batetik, eraikinaren une honetako egoerari dagokion energia-efizientziari buruzko ziurtagiria, eta, bestetik, eraberritzearen ondoren eraikinak lortutako energia-efizientziari buruzko ziurtagiria. Eraikina 4.7.b) Oinarriaren barnean hartutako eraikinetako bat bada, justifikazio-memoria bat aurkeztuko da hori frogatzeko.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, laguntzaren xede diren jarduketek gutxienez letra batean hobetu behar dute eraikinaren energia-kalifikazio totala karbono dioxidoko emisioen eskalan (kg CO₂ / m² urte), eraikinaren hasierako energia-kalifikazioarekiko. Irizpide hori ez da aplikatzekoa izango honako kasu hauetan:

- a) Eraikinak A energia-kalifikazio bat duela akreditatzen duenean eta hobekuntza-neurriak proposatzen direnean; kasu horretan, aplikatuko den laguntza gehigarria A letrari dagokiona izango da, irizpide honetarako.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- b) Eraikinak bere energia-kalifikaziorako prozedura bat ez duenean, oinarri honetako 4.2(i).c) idatz-zatian bildutako arteko bat izanik. Kasu horretan, bere energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa % 30 murriztu beharko du letra baten hobekuntzaren efektu baliokide gisa.

Bere energia-kalifikazioaren hobekuntza, jarduketa tipologia bat eginez edo tipologia bat baino gehiago uztartuz lortu ahal izango da, baita jarduketa desberdin baten edo bat baino gehiagoren neurri partzialak eginez ere.

Eraikinaren energia-ziurtapena eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarriko prozedura arautzen duen araudiaren arabera egingo da, onetsitako programa informatiko ofizialen artekoen bat erabilia.

- 4.8.** Programa honetara bildutako jarduketek lortutako azken energia-aurrezpena, 2018/2002 Zuzentarauak berrikusitako 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikulua azken energia-aurrezpeneko helburuak betetzeari dagokionez zenbatuko da, urriaren 15eko 18/2014 Legean xedatutakoaren arabera.

Energia-aurrezpen hori ezin izango dute horretara behartutako subjektuek bitan zenbatu, zuzentarau horren 7. artikuluan 2014-2020 aldirako energia-aurrezpen metatuko helburua betetzeari dagokionez.

Azken energia-aurrezpena eta jarduketaren hautagarritasuna kalkulatzeko 2019ko irailaren 25eko Batzordearen 2019/1658 (EB) Gomendioa izango da aplikatzekoa, energia-aurrezpeneko bete-beharren transposizioari buruzkoa, energia-efizientziari buruzko zuzentarauaren arabera.

- 4.9.** Laguntzako jarduketek aplikatzekoa zaien indarreko araudia bete beharko dute, eta beharrezko lizentziak eta administrazio-baimenak eduki jarduketa horiek hori eskatzen badute.
- 4.10.** Programaren barruan laguntzaren xede diren gehieneko kostu hautagarria eskaera bakoitzeko, III. eranskinean ezarri da. Jarduketa diruz lagungarri mota guztiei aplikatzekoa den gutxieneko kostu hautagarria 10.000 euro laguntza-eskaera bakoitzeko.
- 4.11.** Azken hartzaileentzako **laguntzen zenbatekoa** dokumentu honen I. eranskinean ezarri da jarduketa diruz lagungarrietarako.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak

5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzailearen arabera

4. Oinarrian eta I. eta III. eranskinetan jasotakoaren arabera. Edozein kasutan, gehieneko laguntza laguntzaren azken hartzaile bakoitzeko 250.000 euro izango da.

5.2. Europako araudi aplikagarria

1.5. Oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

5.3. Bateragarritasun-erregimena beste laguntza batzuekin

Programa honen eremuan ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde zein entitate publiko nazional edo nazioarteko batek emandakoekin, bereziki Europar Batasunaren, bestelako programa edo tresnetako laguntzekin, baldin eta laguntza horrek kostu berberak eskatzen ez baditu, eta, metatuta, 651/2014 Erregelamenduak enpresak diren edo merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten azken hartzaileentzat ezarritako mugak gainditzen ez badira.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

5.4. Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea

- a) Dirulaguntzei buruzko Legearen 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, laguntzaren azken hartzaile batek azpikontratatu duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: dirulaguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren egikaritzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko azken hartzaileak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, 29. eta 68. artikuluko horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

- b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), azken hartzaileak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean «**21/2012 Dekretua**»), laguntza-programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Tramitagune Eusko Jaurlaritzako tramitazio elektronikoa aplikatuz, Euskadi.eus webgunean eta EEEn webgunean eskuragarri dagoena (www.eve.eus). Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duten tramite edo dokumentuak elektronikoki aurkezten badira, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontaktzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikuluan arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, **6. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortzen ez bada, eta betiere Programaren indarraldia amaitu ez bada, eskaerak behin-behineko erreserbako zerrendan erregistratzeko aukera izango da, **3. oinarrian** adierazitakoari jarraikiz.

Laguntza-eskaerak Oinarri hauetako II. eranskinean adierazitako dokumentazio guztiarekin batera joango dira, laguntzaren azken hartzailearen tipologiaren eta diruz lagundu nahi den jarduketaren arabera.

EEEk eskatzaileari eskatu ahaliko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertze beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

8.1. Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 62.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (hemendik aurrera, «**36/2020 Errege Lege Dekretua**»), eta kontuan hartuta aurreikusitako laguntzak bideratzen direla beste proposamen batzuekiko konparaziozko balioespenaren beharrik ez duten jarduketa edo egoera zehatzak finantzatzera, laguntza-eskaerak ebatziko dira konkurrentzia jarraituko prozedura baten bitartez, behin egoera edo jarduketa diruz lagungarriaren konkurrentzia egiaztatu eta eskatutako gainerako betekizunak bete ondoren, deialdietan esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Hala, eskaerak aurkezten diren ordena zorrotzaren arabera aztertu eta tramitatuko dira.

8.2. EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, gaitzetsizat hartuko da eskaera.

Ebazpenean honako hauek azalduko dira: (i) dirulaguntzaren xedea den jarduketa, (ii) haren zenbatekoa (kopuru gordina, azken hartzailearen izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) funtsen jatorria, (iv) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, eta (v) eskaerari ezezkoa emanez gero, ezezkoaren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze-errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorriz; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, «**29/1998 Legea**»).

8.3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorriz (Dirulaguntzei buruzko Legearen 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

8.4. Azkenik, bat etorri Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**») eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduak diotenarekin, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEk bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren dirulaguntzak, eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea

9.1. Laguntzaren xede diren jarduketak egikaritu eta fakturatzeko gehieneko epea hemezortzi (18) hilabete izango da, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunaz geroztik.

9.2. Azken hartzaileek laguntzaren xede diren jarduketak egikaritu, fakturatu eta ordaindu dituztela erakusten duen justifikazioa EEEen egin behar da, elektronikoki, **6. Oinarrian** adierazitako aplikazio informatikoaren bidez, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe, hiru (3) hilabeteko gehieneko epean jarduketak egikaritzeko emandako gehieneko epea amaitzen denetik aurrera.

9.3. Laguntzen azken hartzaileak aplikatzekoa den oinarri hauetako II. eranskinean adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, eta, espezifikoki, laguntzaren azken hartzailearen eta egikaritu den jarduketaren arabera adierazitakoa. Horri dagokionez, espresuki adierazten da ez dela dokumentazioa aurkezteko inolako salbuespenik ezarriko.

9.4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla jasotzen duten ziurtagirien akreditazioa automatikoki eta ofizios egiaztatuko du EEEk, Nafarroako Foru Aldundiari eta Estatuko Zerga Agentziari buruzkoak izan ezik. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

9.5. Laguntzaren azken hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa osatu gabea bada, akastuna bada, edo postaz edo presentzialki aurkezten bada, laguntzaren azken hartzaileari hamar (10) egun baliioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaera-idazkiaren bidez, laguntzaren azken hartzaileak zuzentze-jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera (39/2015 Legearen 68. artikulua).

9.6. EEEk ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko epea, eta justifikazioa atal honetan ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebotatzea eta Dirulaguntzei buruzko Legean ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.

Jarduketak egikaritzeko epeak aurreikusi ezin diren arrazoiengatik soilik zabaltzea baimenduko da, betiere behar bezala justifikatuak badira eta jarduketak betetzea ezinezkoa izatea eragiten badu, laguntzen azken hartzaileek beren aldetik eska daitezkeen gutxieneko neurri tekniko eta plangintza-neurriak hartu izan badituzte ere. Ezin izango da, ezein kasutan ere, zenbaketa totalean laguntza ematearen ebazpenaren jakinarazpen-datatik edo dagokion kontratua esleitzeko ebazpen-datatik hogeita lau (24) hilabete gaunditzen dituzten epe-zabalkuntzak baimendu laguntzaren xede den jarduketa egikaritzeko eta justifikatzeko.

9.7. Eskatutako dokumentazioa jasotakoan dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balioespina positiboa bada, EEEk laguntza ordaintzeari ekingo dio, funtsen jatorriaren erreferentzia espresua eginda, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Berroneratzeko eta Erronka Demografikoko Programa, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren



2021/241 EB Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aipatuz.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errelokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

Aldiz, laguntzaren azken hartzaileak:

- Justifikazio-betebeharra betetzen ez badu **9. oinarrian** aurreikusitakoari jarraikiz.
- Oinarri hauetan eta/edo dirulaguntzen alorrean ezarritako araudian bildutakoez bestelako edozein baldintza betetzen ez badu.

Laguntzaren erabateko errelokazioko espediente bati emango dio hasiera EEK.

Laguntzaren bi errelokazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, eta, bidezko bada, aurrerakina itzultzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduen 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

- 9.8.** Laguntzaren azken erabiltzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEK dirulaguntza, identifikatutako proiektua dagokion laguntza-eskaeran amaitu ondoren, lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen dokumentazioa EEKri aurkeztu ondoren.
- 9.9.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak, bere erakunde autonomoek edota EEK emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldiaren edo bide betearazlean.

Azken erabiltzaileek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, hauxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo azken erabiltzaileei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldiaren zorrik ez izatea.

Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduen 21. artikulua).

10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEK Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalko ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEK beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren in situ egiaztatzea egingo zaien azken hartzaileei alde aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEKren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEK onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio azken hartzaileari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEK dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebokatzeko espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEK dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak

Deialdi honen xede den laguntzen azken hartzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a) Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean onuradunak berariaz eta idazki bidez uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, dirulaguntza-deialdi honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei eta gainerakoei dagokienez, baita laguntzen deialdi honi dagokionez ere.
- c) Dirulaguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d) Informazio-errekerimenduen eta egiaztatze eta kontrol ekonomiko-finantzarioko jarduketan eraginpean jartzea eta Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiari, Estatuaren Administrazioaren Esku-hartze Nagusiari, Kontu Auzitegiari, Europako Batzordeko kontrol- eta ikuskapen-organoei eta Estatuko zein Europar Batasuneko eskumeneko kontrol-agintari edo -organoei egiaztatze eta/edo kontrol finantzarioaren alorrean egin ditzaketen beste jarduketa orori ematea eskatu ahal dioten informazioa; betiere, dirulaguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko, dirulaguntza-deialdi honen kargura, eta, espezifikoki EEEK, 691/2021 Errege Dekretuan aurreikusitakoa betez, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari nahitaez igorri behar dion informazioa.
- e) Kudeaketaren ardura duen organoa den heinean 691/2021 EDko 11. artikulua EEEri agindutako betebeharrak guztiz betetzen direla zaintzea, eta, aldi berean, EEEri zeregin horretan laguntzea. Ildo horretan, laguntzen azken hartzaileek honako hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte espresuki:
 - Dirulaguntzei buruzko Legean, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduan, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzeko aplikatu litekeen Estatuko zein Europako araudian dirulaguntzen onuradunentzat jasotako betebeharrak zorrotz betetzen dutela.
 - Deklaratutako gastua ordaindu dela eta aplikatzeko den legeria betetzen duela.



- Gastuaren finantzaketa Europar Batasunaren beste programa eta tresna batzuekin batera gertatzen bada, laguntzak ez duela kostu bera estaltzen.
 - Gastuaren finantzaketa ez dela beste finantzaketa-araubide nazional batzuekin bikoizten.
 - Laguntzen azken hartzaileek, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jardura ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona fisikoen kasuan izan ezik, eragiketarekin lotutako transakzioetarako kontabilitate-sistema bereizi bat edo kontabilitate-kode egoki bat erabiltzen dutela bermatzea.
 - Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeko neurri eraginkorrak aplikatzen dituztela, neurrizkoak atzemandako arriskuen arabera, eta, batez ere, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren harira Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak edo estatuko zein Europar Batasuneko agintariek eman ditzaketen instrukzio, jarraibide eta araei jarraikiz nahitaez aplikatzekoak direnak.
 - Auditoria-pista egoki bat edukitzeko behar diren auditorien eta gastuaren gaineko dokumentazioa erabilgarri dagoela bermatzeko prozedurak ezartzen dituztela.
 - Subentzionatutako eragiketa guztien administrazio-egiaztapen egokiak egitea ahalbidetzen dutela, gastuaren erregulartasuna, ordainketen errealitatea eta laguntzaren baldintzetarako egokitasuna bermatu ahal izateko.
 - Adierazgarritasuna bermatzen duen laginketa metodo baten bitartez hautatutako eragiketa zehatzak lekuan bertan egiaztatzea ahalbidetzen dutela.
 - Jasotako aurrekontuaren jarraipen zehatza eta berezia egiten dute, estatu-laguntzen gaineko Europako araudian ezarritako mugak, baldintzak eta laguntza-intentsitateak betetzen direla egiaztatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari kudeatzeko eta egikaritzeko aplikatzekoa den arau edo erregelamendu oro ere aplikatuz.
 - Finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmentzen dela, bidezko bada, Europar Batasunaren ikurrarekin eta «Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU» dioen finantzaketa-adierazpen egoki batekin, bereziki ekintzak eta haien emaitzak sustatzen direnean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarriz, komunikabideak eta publikoa barne.
 - Proiektuak diseinatu eta egikaritzeko base guztietan eta jarduketa bakoitzerako «kalte esanguratsurik ez egitearen» printzipioa eta klima-etiketa digitala guztiz betetzen direla bermatzen dela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoari jarraikiz.
- f) EEERI jakinaraztea xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- g) Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, laguntzaren azken erabiltzaileak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat egokitzen zaiola indarreko araudi aplikagarriari, teknikoari edo urbanistikoari, edo beste edozein izaeratakoari.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- h) Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketaren xede izan daitezkeela kontuan hartuta. Dokumentuen erabilgarritasuna, Europako funtsei aplikatzeko den araudian ezarritakoari lotuko zaio, eta espezifikoki, 2021/241 (EB) Erregelamendua 22.2.f) artikuluan aurreikusitakoari.
- i) Pertsona fisikoak ez diren laguntzen azken hartzaileek kontabilitate banandu edo berezi bat izan beharko dute laguntzaren xede den jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- j) Subentzionatutako ondasunaren eta/edo higiezinaren titularra izan beharko du onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik.

Laguntzaren azken erabiltzaileak laguntzaren xede den ondasuna eta/edo higiezina besterentzen badu, aldez aurretik ezarritako denbora-tartea igaro baino lehen:

- Egiaztatu beharko du, eta EEeren aurrean deklaratu erosle berriak betetzen dituela Oinarri hauetan laguntzaren azken hartzaile izateko aurreikusitako betekizun guztiak.
- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:
 - Ondasun horrek laguntza-programa honen babesa jaso duela.
 - Erosle berriak laguntzaren azken erabiltzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, aipatutako epea bete arte.
- EEEri egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik.

Laguntzaren azken hartzaileak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera.

- k) Publizitate-alorreko betebeharrei dagokienez:
- Argitalpenetan, hedatze-jardueretan, webguneetan eta, oro har, edozein hedabideetan araututako laguntzen xede den jarduketari buruz egiten duen edozein erreferentziak kasuan-kasuan Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean erabilgarri egongo den Irudi Eskuliburuan dauden betekizunak bete beharko ditu, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, hori guztia horri dagokionez ezarritakoa eta Dirulaguntzei buruzko Legearen 18.4 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua 31. artikuluan aurreikusitakoa betetz.
 - Kasu guztietan, finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmendu beharko da, bereziki jarduketa diruz lagungarriak eta haien emaitzak sustatzen direnean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarriz, komunikabideak eta publikoa barne.
 - Aurrekoaren osagarri, laguntzen azken hartzaileek publizitate-betebehar hori bete beharko dute, komunikazio-ekintza guztietan adieraziz, edozein formatutan, jarduketak dirulaguntza jaso duela EEEk deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programa Laguntza Programaren bitartez (PREE 5000 programa).
 - l) EEEk hala eskatzen baldin badio, azken erabiltzaileak konpromisoa hartzen du erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazioa baimentzeko ere, hamar (10) urteko epean, EEEk dirulaguntza ordaintzen duen egunetik kontaktzen hasita.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

m) Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEERI, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioren berri ere.

12. Ez-betetzeak eta dirua itzultzea

Laguntzaren azken hartzaileak jasotako dirulaguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legezko interesari % 25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kopuru bat esaten ez badu), dirulaguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, Oinarri hauetan, 691/2021 Errege Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak eta **14. oinarrian** aurreikusitako gainerako arau aplikagarriak edo dirulaguntza emateko eabazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espediente ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko litzaioke EEERI, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. titulua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, araubidea eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularazteko, EEERI zuzendari nagusiak du.

13. Informazio-klausula eskatzaileei

Datuak babestari buruzko informazioa (Datuak babestari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	Energiaren Euskal Erakundea (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011 Bilbao (Bizkaia) Tel.: 94 403 56 00 harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den erlazioaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahalko dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeke epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Emakiden hartzaileak	Kontrol-arloko eta kontrol-alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak. Zehazki, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeke, eraman-garritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEERI idazki bat bidaliz, «datuak babesteko eskubideak egikaritzea» adieraziz, eskubide horiek



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Datuen babesari buruzko informazioa (Datua babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendua betetzeko)	
	dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikari daitezkeen neurrian.
	Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
<p>Dirulaguntzaren azken hartzaile orok konpromisoa hartzen du, bere dirulaguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako pertsona fisiko/juridiko ororen datu pertsonal oro EEERI eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzeak izan daitezkeen eskakizun oro EEERI datu pertsonak behar bezala lagatzeko. Ordezkapena gauzatzeko, ordezkarria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da, eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentziasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ezin izango zaizkio jakinarazi, non eta haren ordezkatuak espresuki baimena eman ez dion. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta beraz, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Ordezkaririk segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEERentzako datuen komunikazio-kanaletan, EEERI jakinarazi beharko dio berehala.</p>	

14. Azken xedapenak

- EEERen erabakiak izaera administratiboa du, eta EEER kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
- Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEER.
- Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken erabiltzailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEER eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
- Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
 - Abuztuaren 3ko 691/2021 Errege Dekretuaren bitartez arautzen dira jadanik dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko jarduketarako eman beharreko dirulaguntzak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Hiriko birgaitzeko eta berroneratzeko planaren Birgaitzeko eta erronka demografikoko programaren barnean hartutako erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programa egikaritzuz (PREE 5000), baita autonomia-erkidegoei zuzenean ematea ere.
 - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.
 - Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, laguntza kategorian jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten duena Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz, aplikatzeak izan litezkeen zuzenbide nazionalako zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituen, bere azken xedapenetan lehenaren arabera oinarritzeko diren xedapenetan.
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena; eta
- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

I. ERANSKINA

LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- Oinarrizko Laguntzaren eta egokitu ahalko litzatekeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da laguntzaren intentsitatea, kasuan-kasuan, 3. zenbakian adierazten diren irizpideak betetzearen arabera.
- Oinarrizko Laguntzaren intentsitatea ondorengo taulako ehunekoen arabera zehaztuko da, eta zenbateko horren kalkulua III. eranskinean ageri den prozedurari jarraikiz egingo da jarduketa tipologia bakoitzerako:

Laguntzaren Intentsitatea Oinarriak		
Jarduketa tipologiai (%-a kostu hautagarriaren arabera)	Oinarrizko Laguntza	Laguntza Gehigarria energia-efizientziako irizpide sozialagatik edo integratutako jarduketagatik
1. mota Ingurutzailerako termikoaren energia-efizientzia hobetzea.	% 50	Eraikinaren erabileraren arabera eta IV eranskinean jarduketa motarako ezarritakoaren arabera. Oinarrizko laguntzaren eta laguntza gehigarriaren baturak ezin izango du gainditu, kasuen arabera 651/2014 (EB) Erregelamenduak ezarritako muga.
2. mota Instalazio termikoen energia-efizientziaren hobekuntza.	% 40	
3. mota. Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.	% 20	

- Irizpide sozialaren, energia-efizientziaren eta jarduketa integratuaren arabera graduatuko da Laguntza Gehigarria, ondoren definitutakoaren arabera:

a) **Irizpide soziala:** irizpide sozialaren araberrako laguntza gehigarri baterako eskubidea izango dute, III. eranskinaren graduazioaren arabera, EAeko organo eskudunak babes publikoko erregimenen baten pean behin betiko kalifikatutako etxebizitza-erakinetan egindako jarduketek, edo Hiri eta Landa Eremuak Berroneratzeko eta Berritzeko Guneetan dauden etxebizitza-erakinetan egindako jarduketek, martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak araututako 2018-2021 aldiko Etxebizitzari buruzko Estatu Planaren arabera eta aplikatzekoa den indarreko beste edozein araudi autonomiko edo lokalen arabera.

b) **Energia-efizientzia:** energia-efizientzia hobetzeagatik laguntza gehigarri baterako eskubidea izango dute, III. eranskinaren graduazioaren arabera, «A» edo «B» energia-klase bat lortzeko eraikinaren energia-kalifikazioa igotzen duten jarduketek, CO₂ eskalan, edo bestela bi letratan gehitzen dutenek hasierako energia-kalifikazioa, apirilaren 5eko 235/2021 Errege Dekretua indargabetzen duen eraikinaren energia-efizientzia ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera. Otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuak eta haren ondorengo edozein aldaketak arautzen dute EAEn eraikinaren energia-efizientziaren ziurtatzea erregistratu eta kontrolatzeko prozedura.

Energia-efizientziagatik laguntza gehigarria lortzeko xedez, eraikinaren une honetako egoeraren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria eta eraberritzearen ondoren proposatutakoari buruzkoa, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aitortutako programa informatikoekin egin beharko dira, 2016az geroztiko bertsioak erabiliz. Bi ziurtagiriak programa eta bertsio berarekin egin beharko dira. Dagoen eraikinaren ziurtagiria bat ez badator laguntza-eskaeran adierazitakoarekin, ziurtagiri berri bat egin eta erregistratu beharko da.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

c) Jarduketa integratua: jarduketa integratuagatiko laguntza gehigarriko eskubidea izango dute honako kasu hauek:

- 1) III. eranskinean definitutako jarduketan bi tipologiaren edo gehiagoren konbinaketa aldi berean egiten duten etxebizitza-erabilerako eraikinak, jarduketa horietako bat nahitaez delarik berokuntzaren eta hozketaren % 30eko eskaera globalaren gutxieneko murrizketa dakarren inguratzaile termikoaren gainekoa (1. tipologia), dagoen sorkuntza termikoko potentziaren gutxienez % 60ko ordezipena dakarren 2. tipologiaren (2.2-2.4 tarteko azpitipologiak) instalazio termikoaren gaineko beste jarduketa batekin konbinatua. Eguzki-instalazio termiko bat egiten bada (2.1 azpitipologia), etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako energia-eskariaren gutxienez % 30 estaltzea izango da baldintza, Eraikingintzaren Kode Teknikoak ezartzen duenari jarraikiz kalkulaturakoa S1 tipologiaren kasuan edo berokuntzaren edota hozketaren eskariaren % 30 S2 eta S3 tipologiaren kasuan.
 - 2) II. eranskinean definitutako jarduketan bi tipologiaren edo gehiagoren konbinaketa aldi berean egiten duten etxebizitza-erabileraz bestelako erabilera duten eraikinak, jarduketa horietako bat nahitaez delarik berokuntzaren eta hozketaren % 30eko eskaera globalaren gutxieneko murrizketa dakarren inguratzaile termikoaren gain (1. tipologia), egungo sorkuntza termikoko potentziaren gutxienez % 60ko ordezipena dakarren 2. tipologiaren (2.2-2.4 tarteko tipologiak). Eguzki-instalazio termiko bat egiten bada (2.1 azpitipologia), etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako energia-eskariaren gutxienez % 30 estaltzea izango da baldintza, Eraikingintzaren Kode Teknikoak ezartzen duenari jarraikiz kalkulaturakoa S1 tipologiaren kasuan edo berokuntzaren edota hozketaren eskariaren % 30 S2 eta S3 tipologiaren kasuan.
 - 3) III. eranskinean definitutako jarduketan bi tipologiaren edo gehiagoren konbinaketa aldi berean egiten duten etxebizitza-erabileraz bestelako erabilera duten eraikinak, jarduketa horietako bat nahitaez delarik berokuntzaren eta hozketaren % 30eko eskaera globalaren gutxieneko murrizketa dakarren inguratzaile termikoaren gainekoa (1. tipologia), Eraikingintzaren Kode Teknikoaren HE 3 oinarritzko eskakizuna betetzen duen argiztapen-azaleraren % 25etik gorako berrikuntza dakarren 3. tipologiaren (barne-argiztapena) beste jarduketa batekin konbinatua.
 - 4) Laguntza gehigarriko eskubidea izango dute energia berriztagarrien erkidego baten barruan edo energiako herritarren erkidego baten barruan bildutako eraikinek, 2.1.(i).g). oinarriaren definizioaren arabera. Aurreko jarduketak behar bezala justifikatu behar dira egungo eraikinaren eta etorkizuneko birgaitutako eraikinaren energia-kalifikazioaren bidez, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuaren, otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren eta haren ondorengo edozein aldaketaren arabera aitortutako programen arteko edozeinen bidez lortutakoa.
4. Laguntza totalaren zenbatekoa, edozein kasutan ere, jarduketa tipologiari eta onuradun motari aplikatzekoa gerta dakioken Estatuko laguntzen araudiaren aplikazioaren ondoriozko gehieneko zenbatekoak mugatuko du.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

II. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

A) Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa.

1. Oro har:

a) Eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren/AIZren kopia, eskaera erakunde juridiko bat ordezkatzeko edo jabeen talde edo erkidego bat ordezkatzeko aurkezten den adierazita. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta interesdunak EEeri espresuki baimena ematen badiot bere nortasun pertsonaleko datuak kontsulta ditzan Nortasun Datuak Egiaztatze Sistemaren bitartez.

Nolanahi ere, 39/2015 Legeko 28. artikuluan ezarritakoa betez, interesdunak salbuetsita egongo dira edozein Administrazio egindako dokumentazioa edo haiek lehenago aurkeztutako dokumentazioa aurkeztetik, betiere interesdunak administrazio jarduleari ukatzen ez badiot dokumentu horiek kontsultatu edo biltzeko baimena. Bestetik, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak administrazio publikoei eskumena ematen die bere esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.

b) Eskatzailearen ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena erakunde juridikoaren edo jabeen talde edo erkidegoaren izenean jardunez gero, non zehatz-mehatz jasota geratuko diren honako puntu hauek:

1) Ez daude Dirulaguntzei buruzko Legearen 13. artikuluan aurreikusitako egoera bakar batean, berariaz adierazita bestelako dirulaguntza edo laguntzak ordaintzeko betebeharrak ez dutela edo, izatekotan, betetzen dituztela, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritako baldintzetan.

2) Egunean daude zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta hori egiaztatzea beharko dute Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 22. eta 24. artikuluetan ezarritakoa betez, kontuan hartuta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian, 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95.1.k) artikuluan ezarritakoa, eta xede horretarako aintzat hartuko da onuradunak, laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, administrazio-organo emaileari baimena ematen diola informazio hori zuzenean kontsultatzeko zerga-administrazioarekin edo Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

3) Ez dute laguntzarik eskatu edo jaso jarduketa edo helburu bererako edo, eskatu badituzte, eskatutako –eta kasuan-kasuan, lortutako– laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dute, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere.

4) Ordezkatzeko den enpresa, kasuan-kasuan, ez dago krisian, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europako Erkidegoko Jarraibideek ezarritakoaren arabera (Batzordearen komunikazioa, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31koa).

c) Jarduketa eskatzen duen/duten eskatzaile(ar)en aldetik eraikinaren jabetza egiaztatzen duen dokumentuaren kopia, salbu eta jarduketaren eskatzailea jabeen erkidego bat edo erkidegoen elkarte bat bada, uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturitakoak, kasu horretan ondorengo azpiatalean xedatutakoa beteko delarik.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Xede horretarako honako hauek aurkeztu ahalko dira: eraikinaren titulartasuna akreditatzen duen katastro-ziurtagiria, jabetza-erregistroaren ziurtagiria edo ohar sinplea, edo higiezinaren erosketa frogatzen duen gertakariaren, egintzaren edo negozio juridikoaren akreditazio-dokumentua(k). Izaera publikoko (eskritura publikoa) edo pribatukoa izan daiteke dokumentu hori, betiere frogatzeko moduan jasota badago dokumentuaren dataren, esku-hartzaileen eta, kasuan-kasuan, Kode Zibilarren 1261. artikulua aitutzen dituen eskakizun guztien errealitatea. Jarduketaren eskatzailea jabea ez bada, laguntzaren xede den jarduketari dagozkion obrak egikaritzeko esanbidezko ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa edo kontratua ere aurkeztu beharko da (errentamendu-kontratua, ustiapen-kontratua, etab.). Familia bakarreko etxebizitzaren kasuan, eskritura publikoak aurkeztu beharko dituzte, banaketa horizontala duten edo ez egiaztatuta izateko.

d) Akreditatzen dituen jarduketak burutuko diren higiezinaren katastro-datuen kontsulta deskribatzailea eta grafikoa, etxebizitza-erabilera edo beste erabilera batzuk laguntzaren zenbatekoa zehazteari dagokionez, etxebizitzaren erabileraren eta eraikitze-urtearen arabera, 2007aren aurretikoa izan behar duelarik.

e) Eskatzaileak sinatutako justifikazio-txostena, jabeen erkidego baten kasuan presidentea izango delarik, zeinean eskatutako laguntza sartuta dagoen jarduketa tipologiak adieraziko diren, eta horrekin batera, jarduketa diruz lagungarrien deskribapena, kostu hautagarriaren justifikazioa eta eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, EEEK webgunean eskuragarri jarriko duen ereduari jarraikiz.

f) Dagoen eraikinaren egungo egoerako energia-efizientziari buruzko ziurtagiria, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuaren eraikinen efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozeduraren 6. artikulua ezartzen duen edukiarekin, teknikari eskudunak sinatutakoa eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gaitutako erregistroan erregistratua. Otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuak eta haren ondorengo edozein aldaketak arautzen dute EAEn eraikinen energia-efizientziaren ziurtatzea erregistratu eta kontrolatzeko prozedura.

g) Laguntza-eskaeraren eraginpeko eraberritzearen ondoren lortutako eraikinaren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuaren eta otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren eta haren ondorengo edozein aldaketaren arabera, betiere frogatuz laguntza-eskaeraren eraginpeko proiektuak gutxienez letra bateko (1) jauzia ematea ahalbidetzen duela karbono dioxidoko emisioen eskalan (kg CO₂/m² urte), eta energia primario ez-berriztagarriaren gutxienez % 30 aurrezten dela eraikinaren hasierako energia-kalifikazioarekiko, laguntza-eskaeraren eraginpeko neurriekin soil-soilik. Ziurtagiria teknikari eskudun batek sinatu beharko du, eta energia-efizientziari buruzko ziurtagiri horrek ez du zertan erregistratuta egon Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gaitutako erregistroan.

Eraikinaren une honetako egoeraren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria eta eraberritzearen ondoren proposatutakoa, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak aitortutako programa informatikoekin egin beharko dira, 2016az geroztiko bertsioak erabiliz. Bi ziurtagiriak programa eta bertsio berarekin egin beharko dira.

h) Egin beharreko jarduketak eta abiapuntu-egoera behar bezala deskribatzen diren proiektua edo, proiekturik behar ez bada, memoria teknikoa, teknikari eskudunak edo, kasuan-kasuan, instalatzaile batek sinatua. Proiektu edo memoria teknikoan justifikatuko da laguntza-eskaeraren eraginpeko tipologiari aplikatzekoak zaizkion Eraikingintzaren Kode Teknikoaren DB-SI sute-kasuetarako segurtasuneko eta DB-HE Energia Aurrezteko Oinarritzko Dokumentuaren eta aplikatzekoak diren gainerako araudien oinarritzko eskakizunak betetzen direla.

1. Motako jarduketak barne hartzen dituzten proiektu edo memoria teknikoak. Ingurutzailerik termikoaren energia-efizientzia hobetzea, horren barnean hartu beharko direlarik egungo egoeraren eta proiektatutakoaren plano kotatuak (kokalekua, altxaerak, eraikuntza-xehetasunak...), eta, barnealdetik



isolatuz esku hartuz gero, barne-banaketari buruzko planoak ere aurkeztu beharko dira, egungo egoerari eta proposatutakoari buruzkoak.

Proiektuaren edo memoria teknikoaren barnean hartuko da, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren araberrako Hondakinak Kudeatzeko Azterlan bat, teknikari eskudun batek 4.6.c) Oinarria betetzen duela justifikatuko duena, edo bestela, onuradunaren ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non 4.6.c) Oinarrian adierazitakoa betetzen duela justifikatzeko behar den dokumentu guztia aurkezteko eta betetzeko konpromisoa hartzen duen.

Justifikatu beharko da aurreikusitako jarduketek ez diotela ingurumenari kalte esanguratsurik ekarriko, edo bidezko bada, Trantsiziorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak argitaratutako «Ingurumenari kalte esanguratsurik ez egiteko printzipioarekin bat datozen jarduketak diseinatu eta garatzeko gidaren» irizpideak betetzeko neurri zuzentzaileak hartuko direla, EEEn webgunean eskuragarri jarritako ereduaren arabera.

Egungo egoeraren argazki-erreportajea bilduko da. 1. tipologiako jarduketetarako (Inguratzaile termikoaren hobekuntza), inguratzaile termikoaren itxituretan kanpoaldetik jardun nahi denean, itxitura horien guztien argazkiak aurkeztu beharko dira. Kanpoaldetik jardutea barne hartzen duten espedienteetan, itxiturei kanpoaldetik egindako argazkiez gainera, gela guztien argazkiak erantsi beharko dira, estalpean eta lurzoruarekin kontaktuan egonik (beheko solairuan, normalean) jarduketan eraginpean geratzen diren gunek barne. 2. edo 3. tipologiako jarduketetarako, berriz, ordeztu beharreko ekipoen eta banaketa-sistema eta elementu igorleen argazkiak aurkeztu beharko dira. Jarduketa egitean eraginpean geratuko diren espazio guztien argazkiak ere aurkeztu beharko dira.

Argazkiak formatu digital konprimatuan erantsi beharko dira.

i) Jarduketak egikarrituko dituen/dituzten enpres(ar)en aurrekontua, behar bezala banakatua, programa indarrean hasi ondorengo data duena.

j) Etxebizitzak babes publikoko erregimenen baten pean dauden etxebizitza gisa kalifikatuta daudelako irizpide sozialeko laguntza gehigarria biltzen direnen kasuan, erakunde kudeatzaileak edo jabeen erkidegoek autonomia-erkidegoaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute etxebizitzek kalifikazio hori edo kalifikazio baliokide bat lortu zutela egiaztatzen duena.

k) Etxebizitza Hiri eta Landa Eremuak Berroneratzeko eta Berritzeko Gune batean dagoelako irizpide sozialeko laguntza gehigarria biltzen direnen kasuan, autonomia-erkidegoaren ziurtagiri baten bidez akreditatu beharko dute birgaitzearen xede den etxebizitzak Hiri eta Landa Eremuak Berroneratzeko eta Berritzeko Gune batean daudela.

l)

m) Eskaera aurkeztearekin batera aurkeztuko den dokumentazioaren barnean hartu beharko da egokitasunaren aldeko ebaluazio bat edo «ingurumenari kalte esanguratsurik ez egiteko» printzipioa betetzearen gaineko erantzukizunpeko adierazpena, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6) atalean ezarritakoari jarraikiz, EEEn webgunean eskuragarri jarritako ereduaren arabera.

n) Laguntzaren eraginpeko jarduketak behar bezala egin direla akreditatzen duen txostenaren ardua hartuko duen kontrol-erakundearen edo kontrol-entitatearen aurrekontua. Gainera, 1. tipologiako jarduketetarako, obra-zuzendaritzaren eta obra egikaritzeko zuzendaritzaren aurrekontua.

ñ) Nagusiki bizitegi-erabilera-erakundeak diren eraikinetan (laguntzen programa honen ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzako eraikinak eta etxebizitzako bizitegi kolektiboko tipologiako eraikinak) eta Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuaren



(2018ko irailaren 5eko EHAA, 171. zk.) Lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, eraikinaren ikuskapen teknikoa egin beharko da laguntza-eskaera aurkeztu baino lehen. Xede horretarako, EIT txostena erantsi beharko da, baita egiaztatze-kodea barne hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskapen Teknikoen erregistroaren egiaztagiria ere.

o) Laguntzaren azken hartzailea laguntza sartuko litzatekeen kontu-zenbakiaren edo -zenbakien titularra dela egiaztatzeko dokumentazioa.

p) Enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduko I. eranskineko 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
- Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.

Nolanahi ere, aurreko c), d), e), i), j), k) eta l) letretan aipatutakoen akreditazioa ordeztu edo osatu ahalko da aplikatzekoa izan litekeen EAEko araudian horren inguruan espresuki ezarritakoarekin, baldin eta atal horietan bildutakoen berdin-berdinak diren nondik norakoak akreditatzen badira, eta araudi hori espezifikoki bat badator laguntza-eskaeraren eraginpeko jarduketekin.

2. Izaera espezifikorekin, jarduketaren eskatzailea uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako jabeen erkidego bat edo erkidegoen elkarte bat bada.

a) Jabeen erkidegoaren edo jabeen erkidegoen elkartearen identifikazio fiskalaren dokumentuaren kopia (IFZ).

b) Higiezinaren jabeen batzordearen ziurtagiria, jabeen erkidegoaren idazkariak edo administratzaileak emandakoa eta sinatutakoa presidentearen oniritziarekin, zeinean, espresuki, baliozkotasunez hartutako erabaki hauek islatuta egongo diren:

- 1) Dagoen eraikineko birgaitze energetikorako beharrezko obren burutzapenaren onarpena, jarduketaren deskribapen orokor bat eta jarduketa egiteko aurrekontu bat bertan bilduta.
- 2) Organo instruktoreari egindako laguntza-eskaeraren onarpena, programa honen barruan, presidentea ordezkari gisa gaituta laguntza izapidetzeko gestioak egiteko.

c) Higiezinaren jabeen batzordeak hartutako erabakiaren erkidegoko idazkari edo administratzaileak emandako edo sinatutako ziurtagiria presidentearen oniritziarekin, non jabeen erkidegoaren presidentearen, administratzailearen edota idazkariaren izendapena onartzen den.

d) Erkidegoko kideen zerrenda biltzen duen erkidegoko idazkari edo administratzaileak emandako edo sinatutako ziurtagiria presidentearen oniritziarekin, kide horiek partaidetza-kuotak eta eraikina osatzen duten etxebizitzaren kopuru totala adierazita.

3. Izaera espezifikorekin, eskatzaileak jarduketako eraikinaren pertsona fisiko jabeen elkarteak badira orokorrean, betiere Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak eta jabetza horizontalaren dagokion titulua egiletsi ez dutenak:

a) Jabe bakoitzaren identifikazio-dokumentuaren kopia (NAN/IFZ). 1. ataleko letra berean aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

b) Bileran hartutako erabakia non jarduketen egikaritzapena onartzen den, elkarteak sortzen den, ordezkari bat izendatzen den eta, aurkezpenari begira, laguntzen eskaeraren jarraipena eta jabeen gisa egokitu ahalko zaizkien betebeharren betetzea. Ordezkari hori arduratuko da laguntzaren xede den inbertsioa egiteaz eta justifikatzeaz, eta laguntzaren eskatzaile gisa jasota egongo da programa honi



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

dagokionez. Jabetzan jabeakide bakoitzari dagokion kuota justifikatu beharko da dokumentu horretan, eskatutako laguntzako eraikinaren gain. Jabe guztiek sinatu beharko dute dokumentua.

4. Izaera espezifikoarekin, eskatzaileak enpresak edo jarduketaren xede den eraikinaren baterako pertsona juridikoen elkarteak badira, betiere Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak eta jabetza horizontalaren dagokion titulua egiletsi ez dutenak:

a) Pertsona juridiko jabe eskatzaile bakoitzaren identifikazio fiskaleko dokumentuaren (IFZ) kopia.

b) Laguntzaren eskatzaile gisa jasota dagoen pertsona juridikoaren alde emandako erakunde bakoitzeko ordezkapen-ahalorde nahikoa duen eskritura edo, kasuan-kasuan, eskriturak, behar bezala inskribatua, kasuan-kasuan, dagozkion erregistro publikoetan.

c) Zenbait jaberaren elkartearen kasuan, bileran hartutako erabakia non jarduketaren egikaritzapena onartzen den, elkartea sortzen den, ordezkari bat izendatzen den eta, aurkezpenari begira, laguntzen eskaeraren jarraipena eta jabeakide gisa egokitu ahalko zaizkien betebeharren betetzea. Ordezkari hori arduratuko da laguntzaren xede den inbertsioa egiteaz eta justifikatzeaz.

5. Izaera espezifikoarekin, eskatzaileak enpresak edo jarduketaren xede den eraikinaren baterako pertsona fisikoen zein juridikoen elkarteak badira, betiere Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak eta jabetza horizontalaren dagokion titulua sinatzen ez dutenak, aurreko atalean bakoitzarentzat aurreikusitako dokumentazioa aurkeztuko dute.

6. Izaera espezifikoarekin, eskatzailea adskribatutako eraikinerako jabea edo erabiltzailea den administrazio edo erakunde publiko bat bada, administrazioaren edo erakunde publiko onuradunaren organo eskudunaren ebazpenaren edo hartutako erabakiaren akreditazio-ziurtagiria aurkeztuko da, zeinaren arabera laguntzen programa honetan parte hartzea onartzen den, programan bildutako konpromisoak ere hartuz.

7. Izaera espezifikoarekin, eskatzailea energia-zerbitzuetako enpresa bat, eta eraikinaren enpresa errentari edo ustiatzaile bat bada:

a) Enpresari pertsona fisiko edo pertsona juridikoaren IFZren kopia.

b) Enpresaren eskriturak edota enpresaren indarreko estatutuak, behar bezala inskribatuak, kasuan-kasuan, dagozkion erregistro publikoetan.

c) Laguntzaren eskatzaile gisa jasota dagoen pertsonaren alde emandako ordezkapen-ahalorde nahikoa duen eskritura, behar bezala inskribatua, kasuan-kasuan, dagozkio erregistro publikoetan, eta haren NANaren kopia.

d) Laguntzaren xede den jarduketa diruz lagungarriarekin lotutako ekonomia-jardueran Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela akreditatzen duen eta indarrean dagoen dokumentuaren kopia, baita dagokion azken ordainagiria ordaindu izanaren egiaztagiriaren kopia ere (EZEentzat).

e) Energia-zerbitzuen enpresa gisa jardunez gero, erantzukizunpeko adierazpena, erantzukizunez jarduteko konpromisoarekin, erabiltzaileei aplikatu nahi zaizkien kontratu-edukiak adierazita.

f) Eraikinaren errentamendu- edo ustiapen-erlazioa bai eta eskatzailea laguntzako jarduketak egiteko espresuki baimenduta dagoela akreditatzen duen jabearekin edo jabeekin formalizatutako kontratu(ar)en kopia.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

8. Espezifikoki, eskatzailea udal, aldundi probintzial edo tokiko erakunde bat baldin bada, edota Espainiako udalerrien zein Uharteko Kabildo eta kontseiluen mankomunitate edo elkarte bat, etxebizitza-erabilerako bizitegi-erakinen jabekideen erkidegoekin edo bestelako erabilerako eraikinen beste jabe batzuekin hitzarmen bat egiten dutenak energia birgaitzeko jarduketak sustatu eta kudeatzeko, hitzarmenaren kodea ere erantsiko da, non jasoko den tokiko erakundea izendatuta dagoela jabekideen erkidegoak entitateari laguntza kobratzeko eskubidearen onuradun eta ordezkari izateko, eta inbertsioa nola berreskuratuko den ere adieraziko da, bizilagunentzako kuota-sistema baten bitartez behin laguntza publikoak deskontatu ondoren.

9. Izaera espezifikoarekin, eskatzailea energia berriztagarrien erkidego bat edo energiako herritarren erkidego bat bada, 2.1.(i) oinarrian bildutakoen artean sartu ahalko den hartzaile motaren arabera eskatutakoarekin bat etorriko da eskatu beharreko dokumentazioa.

10. Nolanahi ere, aurreko 2.9 ataletan aipatutakoen dokumentazioa ordeztu edo osatu ahalko da aplikatzekoa izan litekeen EAEko araudian horren inguruan espresuki ezarritakoarekin, baldin eta atal horietan bildutakoen berdin-berdinak diren nondik norakoak akreditatzen badira, eta araudi hori espezifikoki bat badator laguntza-eskaeraren eraginpeko jarduketekin.

Aurkezten diren dokumentu teknikoek (proiektua, justifikazio-txostena, eraikinaren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria, aurrekontua, etab.) laguntza-eskaeraren eraginpeko jarduketa berberekin bat etorri beharko dute, hau da, elkarren artean koherenteak izango dira, eta dakartzaten datu teknikoak, berriz, berdinak edo berdintsuak. Bereziki, energia-kalifikazioan lortutako letra-jauzia lortu eta justifikatu beharko da, soil-soilik, laguntza-eskaeraren eraginpeko neurriekin, eta bat etorri beharko du proiektu edo memoria teknikoarekin eta jarduketa egikaritzeko aurrekontuarekin.

B) Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa

Laguntzen azken hartzaileek EEEren aurrean justifikatu beharko dute laguntzaren xede izan diren jarduketak egikaritu dituztela, jarraian zerrendatzen diren dokumentuak aurkeztuz:

a) EEEri zuzendutako jakinarazpena aurkeztutako dokumentazioaren berri emanez, datarekin eta laguntzen azken hartzaileak sinatuta.

b) Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria, kasuan-kasuan, inguratzaile termikoa hobetzeko jarduketaren kasuan (1. tipologia)

Horren barnean hartu beharko dira, besteak beste, lanen hasierako eta amaierako data, egindako aldaketen zerrenda, eraberritzearen ondoko egoeraren plano eguneratuak, DB HE eta DB SI EKTan adierazitakoa betetzearen justifikazioa eta eraikuntzan erabilitako osagai eta materialek amiantorik edo substantzia oso arriskutsurik ez dutela egiaztatzen duen dokumentazioa, 2006ko abenduaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 Erregelamenduaren (EB) XIV. eranskinean jasotako baimendu beharreko substantzien zerrendaren arabera.

c) Instalazio termikoaren ziurtagiria, gaitutako instalatzaileak eta instalazioaren zuzendariak sinatua, azken horren parte-hartzea nahitaezkoa denean, autonomia-erkidegoko eskumeneko organoak erregistratua Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduarekin bat etorritik, instalazio termikoen gaineko jarduketaren kasurako (2. tipologia). Instalazio termikoaren ziurtagiria entregatzen salbuesita badago, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, arrazoien berri emanez.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

d) Jarduketak egin ondoren lortutako energia-efizientziari buruzko ziurtagiria, teknikari eskudunak izenpetutakoa, zeinean akreditatzen den gutxienez letra 1 hobetu dela dagokion energia-kalifikazioa, karbono dioxidoko emisioen eskalan ($\text{kg CO}_2/\text{m}^2$ urte) neurtua, baita energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa abiapuntuko egoeraren aldean % 30 murriztu dela ere, autonomia-erkidegoko edo hiri autonomoko organo eskuduneko erregistroan erregistratua otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuarekin eta haren ondorengo edozein aldatetarekin bat etorri.

Eraikina 4.7 Oinarriaren barnean hartua badago, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa abiapuntuko egoeraren aldean % 30 murriztu dela akreditatzen duen justifikazio-memoria, eskumeneko teknikari batek sinatua.

e) Azken hartzailearen erantzukizunpeko adierazpena, non jasota geratuko den telekomunikazioen eta instalazio digitalen azpiegitura erkideei buruzko araudia betetzen dela, jarduketari aplikatzekoa zaionean eraikuntzen barrualdean telekomunikazio-zerbitzuetara sartzeko telekomunikazioen azpiegitura erkideak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretua, EEEn webgunean eskuragarri jarritako ereduaren arabera.

f) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, oinarriak eta laguntza emateko ebazpenak ematen dutenari jarraikiz, emandako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz. Proiektuaren egile den edo jarduketaren egikaritzapen-zuzendaritzaren teknikari tituludun eskudun batek egindako edo sinatutako memoria, jarduketaren amaiera-data ere adieraziz, EEEn webgunean eskuragarri jarritako ereduaren arabera.

g) Emandako laguntzako jarduketak behar bezala egin direla akreditatzen duen txostena laguntzaren eskaeran aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eraikuntzaren kalitate-kontrolerako erakundeei eta erakuntzaren kalitate-kontrolerako entsegu-laborategiei eskatzekoak zaizkien betekizunak garatzen dituen martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuan ezarritako betekizun teknikoak betetzen dituela egiaztatzen duen kontrol-erakundeak edo kontrol-entitateak emandakoa, beren jardura egikaritu dezaten, edo uztailaren 16ko 21/1992 Legeak eta jarduketaren izaerara hobekien egokitzen d(ir)en espezialitate(et)an kalitaterako eta industria-segurtasunerako azpiegituraren erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretuan araututako instalazio termikoen arau-alorrerako gaitutako kontrol-erakundeak emandakoa. Xede horretarako, kontrol-erakundeak ikuskatu beharko duen gutxieneko dokumentazioa eskuragarri jarriko du EEEn.

h) Egindako jarduketei buruzko eskarien edota kontratuen zerrenda ziurtatuta eta kopia.

Kontratazio publikoa tartean izanez gero, laguntzaren xede diren jarduketak egiteko laguntzaren azken hartzaileak sinatutako kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia, baita kontratazio prozedura justifikatzen duen dokumentazioa ere: kontratatzailearen profilaren web helbidea, agiriak, lizitazio-iragarkiak eta kontratuen formalizazioa, kontratazio-organoaren akordioak.

i) Fakturen eta dagozkien bankuko ordainketa-egiaztagirien zerrenda ziurtatuta eta kopia, egiteko inbertsio hautagarriari dagozkionak, eta aurkeztutako aurrekontu eta kontratuei erantzungo dietenak.

j)

k)

l) Ogasunak eta Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiriak, laguntzen azken hartzaileak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela justifikatzen dutenak, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Justifikazio-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea EEEK zuzenean lor dezan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

m) Laguntza-programa honen testuinguruan eskatutako jarduera edo helburu bererako kobratutako beste dirulaguntza edo laguntzak daudela akreditatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren laguntzak izanik ere, estatukoak edo nazioartekoak.

n) Egindako jarduketaren argazki-erreportajea, jarduketaren ondorengo eraikinaren egoeraren, eta kasuan-kasuan, laguntzaren xede diren ekipamendu eta instalazio nagusien egoeraren argazkiak biltzen dituen, betiere jarduketaren publizitate-kartela edo seinaleztapena ere erakutsita. Laguntzen azken hartzailearen Interneteko gunearen informazioa eta bertan sartzeko esteka, gunerik badu, eta bertan laguntzen azken hartzaile horrek jendeari informazioa emango dio Next Generation Funtsetatik edo Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik ortutako laguntza posibleaz edota, kasuan-kasuan, Europar Batasuneko dagokion tresnatik jasotakoaz, eragiketaren deskribapen labur bat eginez, proportziozko moduan emandako laguntza-mailarekiko, laguntzaren helburu eta emaitzekin, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz betiere.

Argazkiak formatu digital konprimatuan erantsi beharko dira.

o) Jarduketaren kontratazio-prozesuari buruzko justifikazio-dokumentazioa laguntzen azken hartzailearen aldetik.

p) Zerrendatutako transakzio guztietarako (diru-sarrerak eta ordainketak, kasuan-kasuan, laguntzen diru-sarrera, hornitzaileei egindako ordainketak, eta abar, barne) bereizi edo desberdindu bat dagoela justifikatzen duen dokumentazioa.

q) Erantzukizunpeko adierazpena, laguntzen azken hartzaileen justifikazioaren ondoren, jarduketaren kontratazio-prozesua bermatuz, zerrendatutako transakzio guztietarako kontabilitate berezia edo banandua dagoela bermatuz, horrelako jarduketei aplikagarria zaien aukera-berdintasunaren eta ez-diskriminazioaren gaineko betekizunei buruzko estatuko eta Europako erkidegoko ingurumen-arauak betetzen direla bermatuz, eta garapen jasagarriari eta laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-esparruan eraginkorrak eta proportziozkoak diren iruzurraren aurkako garapenari buruzkoa (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren edota dagokion autonomia-erkidegoaren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera).

r) 4.6.c) Oinarrian adierazitakoa betetzen dela justifikatzen duen dokumentazioa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketari buruzko azterlana barne hartuko duen proiektua edo memoria teknikoa aurkeztuz, baita eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko dagokion plana ere, plan hori aplikatzeko modua zehaztuta, hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan araututakoaren arabera. Aurrekoa honela justifikatuko da:

i) Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen % 70eko balorizazioa betetzen dela behar bezala egiaztatzeko (4.6.c Oinarria), esleipendunak laburpen-memoria bat aurkeztuko du, non sortutako hondakinen kantitate osoa adieraziko den LER kodeen arabera sailkatuta, baita helmugako kudeatzaileen ziurtagiriak ere, instalazio bakoitzean lortutako balorizazio-ehunekoa adierazita. Balorizatu ezin daitezkeen hondakin arriskutsuak ez dira kontuan hartuko helburu hori lortzeko.

ii) Gaikako eraispén bat egiteko neurrien ezarpena bete dela egiaztatuko da, sortutako hondakinen entregaren justifikazio gisa kudeatzaileek emandako ziurtagirietan jasotako LER kodeen bitartez. Gaika jasotako zatikiei dagozkie kode horiek, hala nola 170101, 170102, 170103, 1704, 170201,



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

170202, 170203, 200101 edo 170802. Eraikuntza-hondakinak bereiziko dira ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluetan adierazitakoari jarraikiz.

iii) Hondakinak obran bertan balorizatzen badira, esleipendunak laburpen-memoriaren barnean sartuko du balorizatutako kantitatei buruzko informazioa, LER kodeen eta erabilitako baliabideen arabera sailkatuta (planta mugikorra, kudeatzailea, etab.).

iv) Hondakinetatik eratorritako agregakin birziklatuak erabiltzen badira, esleipendunak material horien erosketa akreditatzeko dokumentazioa sartuko du laburpen-memorian, material mota eta kantitatea adierazita.

v) Amiantozko hondakinak sortzen badira, ongi tratatzen direla justifikatu beharko da, amiantozko hondakinak sortzen diren tokitik hondakinak kudeatzeko tokira eraman behar direla alde aurretik jakinaraziz eta mugimendu horiei lotutako hondakinen lekualdatzeak identifikatzeko dokumentuak aurkeztuz, Estatuko lurraldean hondakinen lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua aplikatuz.

Nolanahi ere, behin jarduketa gauzatu eta justifikatzeko epea amaitu denean, egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, dagokion laguntza jasotzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

Aurrekoa gorabehera, organo instruktoreak akreditazio- eta justifikazio-jarraibide osagarriak lantzeko aukera izango du, jarduketaren konplexutasunak edo laguntzaren zenbateko handiak hori eskatzen dutenean.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

III. ERANSKINA

JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIAK ETA KOSTU HAUTAGARRIAK

1. *Jarduketa diruz lagungarriak*

1. jarduketa tipologia. Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea

1. Helburua. Egungo eraikinen berokuntzako eta klimatizazioko energia-eskaria murriztea, eraikin horien inguratzaile termikoaren energia-efizientzia osorik edo inguratzaile termikoa bera osatzen duten elementuren bat hobetuta.

2. *Jarduketa diruz lagungarriak.* Jarduketa diruz lagungarriak izango dira eraikinaren inguratzaile termikoan egiten direnak, bizitzeko esparruak kanpo-girotik (airea, lurra edo beste eraikin bat) bereizten duten eraikinaren itxidurek osatzen dutena, eta bizitzeko modukoak diren esparruak bizitzeko modukoak ez diren eraketak bereizten dituzten barne banaketak, aldi berean kanpo-giroarekin harremanetan egongo direnak. Neurri honen barruan bildutako energia-jarduketak eraikinaren berokuntzako eta klimatizazioko energia-eskariaren murrizketa bat lortzen dutenak izango dira, eraikinaren inguratzaile termikoaren gaineko jarduketek bidez. Inguratzaile termikoaren gaineko energia-jarduketek eraikuntza-soluzio konbentzionalak eta ez-konbentzionalak bildu ahalko dituzte.

Eraikuntza-soluzio konbentzionalak hartzen dira eraikinetan beren energia-eskaria murrizteko normalean erabiltzen direnak, hala nola fatxadak, estalkiak, kanpoko arrotzeria, beirak eta eguzki-babeskiak.

Eraikuntza-soluzio ez-konbentzionalak hartzen dira «arkitektura bioklimatikoko» neurri gisa ezagututakoak, hala nola, adibidez: Trombe hormak, horma parietodinamikoak, negutegi atxikiak, iluntze-sistemak, aireztapen naturala, eta abar.

Kostu hautagarritzat hartuko dira, halaber, jarduketa hori burutzeko beharrezkoak diren instalazio osagarriak, hala nola aldamiok edo garabiak.

Diruz lagungarritzat hartuko dira, soil-soilik, eraikinaren inguratzaile termikoaren itxitura baten edo hainbaten (fatxada, estalkia, baoak eta abar) gaineko jarduketa integralak, baina ez eraikin bereko etxebizitza edo lokal baten gainekoak, indibidualki hartuko baitira kontuan.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte jarduketek:

a) Zaharberritzen den inguratzaile termikoa bete behar dituen energia-efizientziako gutxieneko eskakizunak Eraikintzako Kode Teknikoaren DB-HE Energia Aurrezteko Oinarrizko Dokumentuan jasotakoak dira, eta proiektuaren edota memoria teknikoaren teknikari eskudunak akreditatu edota justifikatu behar ditu. Dagoen eraikin batenez, I. zatiaren V. zenbakia izango zaio aplikatzekoa, «Dauden eraikinetan aplikatzekoak diren irizpideak». Eta bereziki malgutasunari buruzko 2. irizpidea, eta, hori horrela, oro har ezarritako prestazio-maila lortzea posible ez den kasuetan, energia aurrezteari buruzko oinarrizko eskakizunak betetzearen ikuspuntutik begiratuta, egokitzapen-maila handiena ahalbidetzen duten soluzioak hartu ahalko dira soluzio horiek teknikoki edo ekonomikoki bideragarriak ez direnean, beste zenbait arrazoiren artean.

Malgutasun-irizpideari lotzen zaizkion jarduketetarako, justifikazio-txosten bat aurkeztu beharko da eskaera-fasean, non barne hartuko diren, besteak beste, eraberritzearen ondoren lortuko litzatekeen prestazio-maila, BD-HE EKTak ezarritako betekizunak betez gero lortuko zatekeen prestazio-mailarekiko aldea, eta ez-betetzearen arrazoia eta justifikazioa. Aurkeztutako justifikazio-txostenen akreditatzen ez bada malgutasun-irizpideei lotzeko ezarri diren betekizunak bete izana, litekeena da jarduketa ez- diruz lagungarritzat jotzea.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

b) «Lehenetsitakoak» ez diren eraikinaren efizientzia-ziurtagiria egiteko eskuduna den teknikariak erabilitako transmitantzia-balioak honela justifikatu beharko dira: hautatutako balioa «zenbatetsia» edo «ezaguna» bada, itxituraren osaera aurkeztu beharko da. Hautatutako balioa «ezaguna» bada eta erabilitako materiala ez badago erabilitako efizientziaren kalifikazioko programa informatikoaren datu-basean, erabilitako Egokitasun Teknikoko Europako Dokumentua aurkeztu beharko da. Beiren eta itxituren kasuan beti aurkeztu beharko da CE ikurra edo arotzeriaren eta beiren fitxa teknikoak, haien ezaugarri teknikoak bertan ageri direlarik.

3. *Laguntzen zenbatekoa.* Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Bizitegi-eraikinetan, etxebizitza bakoitzeko gehieneko kostu hautagarria 18.000 euro izango da etxebizitza bakoitzeko, familia bakarreko etxebizitzetan izan ezik (36.000 euro). Beste edozein erabilerako eraikinetan, gehieneko kostu hautagarria 300.000 euro izango da.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta kostu hautagarriaren % 100 inondik inora gainditzeko aukerarik gabe; edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskineko 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, Oinarri hauetako I. eranskinean kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehunekoak gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letrako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 15	% 15	% 10	% 5	% 25
Gainerako erabilerak.	% 0	% 15	% 10	% 5	% 25

2. jarduketa tipologia. Energia-efizientziaren eta energia berriztagarrien hobekuntza berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko eta etxeko ur beroko instalazioetan

2.1 azpimota Energia konbentzionalaren ordezkari eguzki-energia termikoa jartzea

1. *Helburua.* Energia konbentzionaleko kontsumoa murriztea eguzki-energia termikoa erabiliz etxeko ur beroa produzitzeko, berokuntzarako, hozketarako edota igerilekuen klimatizaziorako.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2. **Jarduketa diruz lagungarriak.** Jarduketa diruz lagungarriak izango dira dauden eraikinetako etxeko ur beroa produzitzeko, berokuntzarako, hozketarako edota igerilekuen klimatizaziorako energia konbentzionalaren orde eguzki-energia termikoa baliatzen duten jarduketak.

Diruz lagungarriak izango dira eguzki-instalazio berriak edo dauden instalazioetako birgaikuntzak edota instalazioen zabalkuntzak, betiere ordezipena edo eguzki-sorkuntzako potentziaren gehikuntza badakarte eta dauden eraikinetan egiten badira. Diruz lagungarritzat hartzen dira, halaber, hiri-arloko klimatizazio-sare bati zerbitzua ematen dioten eguzki-instalazio termikoak.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte eguzki-instalazio termikoeak, eta proiektu edo memoria teknikoan justifikatu beharko dira:

- a) Aplikatzekoa zaion indarreko «Eguzki Instalazio Termikoaren» definizioari erantzungo diote.
- b) Instalazioek eta ekipoeak Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan eta eguzki-instalazio termiketarako Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren Ikuskapena 2009 Baldintza Teknikoen Orrian ezarritako indarreko araudia beteko dute, baita ASITek landutako eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean eskuragarri dagoen «Eguzki Energia Termikoaren ASIT Gida» Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren onetsitako dokumentuan ezarritakoa ere.
- c) Eguzki-kaptadoreek Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren ziurtapena behar dute.
- d) $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } ^\circ\text{C})$ -tik beherako koefiziente globaleko kaptadoreak onartuko dira soilik.

3. Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskineko 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako I. eranskinen kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehunekoak gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo bi letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 10	% 10	% 5	% 0	% 20
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 20



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Jarduketa honi egokituko zaion laguntza kalkulatzeari begira, gehieneko kostu hautagarri bat ezarriko da, kasuaren arabera ondorengo adierazpenen ondoriozkoa, non Ps (kW) eguzki-instalazio termiko berriaren potentzia den. Hiru jarduketa tipologia desberdin ezartzen dira hornitutako aplikazioaren arabera:

– S1 kasua: Etxeko ur beroa produzitzeko edota estali gabeko edota estalpeko igerilekuen klimatizazioa gauzatzeko eguzki-instalazioak. Gehieneko kostu hautagarria (€) = 1.000 x Ps(kW)

– S2 kasua: Berokuntzarako eguzki-instalazioak, eta aukeran S1 kasuan bildutako aplikazioak. Gehieneko kostu hautagarria (€) = 1.500 x Ps (kW)

– S3 kasua: Berokuntzarako eta hozketarako eguzki-instalazioak, eta aukeran S1 kasuan bildutako aplikazioak. Gehieneko kostu hautagarria (€) = 1.850 x Ps (kW)

2.2 azpimota Energia konbentzionalaren ordeza energia geotermikoa jartzea

1. *Helburua.* Dauden eraikinetako energia konbentzionalerako kontsumoa murriztea energia geotermikoa erabiliz honako erabilera hauetako baterako edo bat baino gehiagorako: berokuntza, klimatizazioa, etxeko ur beroa eta igerilekuen klimatizazioa.

2. *Jarduketa diruz lagungarriak.* Jarduketa diruz lagungarriak izango dira berokuntzako, klimatizazioko, etxeko ur beroa produzitzeko edo igerilekuen klimatizaziorako instalazioetan egindakoak, sorkuntza-sistema eraikinean bertan edo eraikinetik kanpo kokatzen bada ere, dauden eraikinen arteko bat edo bat baino gehiago hornituz, betiere energia konbentzionalerako instalazioak ordezkatzeko badituzte, berokuntzako/klimatizazioko sareen aldakuntza barnean hartuz, energia geotermikoa erabiltzen duten instalazioak baliatuz.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte instalazio geotermikoek, eta proiektu edo memoria teknikoan justifikatu beharko dira:

a) Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte egindako instalazioek, eta zirkuitu itxiko truke geotermikoko sistemen kasurako, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak argitaratutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan «Zirkuitu itxiko truke geometrikoko sistemen diseinuko gida teknikoa» onetsitako dokumentua, eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduen Dokumentuen Erregistro Ofizialean eskuragarri dagoena Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean, baita aplikatzeko zaien beste edozein legeria ere.

b) Bero-ponpa duten ekipoen jarduketarako, eraikinaren efizientzia-ziurtagiria lantzeko teknikari eskudun batek erabilitako urtaroko errendimendu-balioak bero-ponparen sasoiko batez besteko errendimendurekin uztartu behar dira, eta honako dokumentu hauetakoren baten bidez zehaztuta eta justifikatuta egon behar dute:

- Bero-ponparen fitxa teknikoa edo etiketa energetikoa, zeinean urtaroko batez besteko errendimenduak agertuko dira;
- EUROVENT ziurtagiria edo antzekoa;
- teknikari eskudunak izenpetutako txostena. Txostenerako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduen: «Eraikinetan beroa produzitzeko urtaroko batez besteko prestazioak» onetsitako dokumentua erabili ahalko litzateke.

Geotermiako instalazioen kasuan, kostu hautagarritzat hartuko dira, II. eranskinen 2. puntuan adierazitakoez gain, honako kontzeptu hauek: ekipotan egindako inbertsioa, instalazioaren egikaritzapen-kostuak, lotutako obra zibila eta beharrezko instalazio osagarriak, eta horrekin batera instalazioaren diseinua egin baino lehenagoko alde aurreko azterlan, entsegu, zundaketa eta simulazioak egitearen



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

kostua, baita zundaketa, indusketa, zimentazio, lubaki, urbanizazio eta instalazio horien ustiapenerako beharrezkoak diren gainerako elementuak ere, bero-/hotz-sareak eta truke-estazioak ahaztu gabe.

3. *Laguntzen zenbatekoa*. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskineko 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, Oinarri hauetako I. eranskinean kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letrako edo gehiagoko gehikuntza.

Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 10	% 0	% 0	% 0	% 20
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 20

Jarduketa honi egokituko zaion laguntza kalkulatzeari begira, gehieneko kostu hautagarri bat ezarriko da, kasuaren araberako ondorengo adierazpenen ondoriozkoa, non P (kW) sorgailuaren potentzia termikoa den: Instalazioaren potentziatzat hartuko da, UNE-EN 14511 arauaren entseguei jarraikiz fabrikatzailearen fitxa teknikitik edo zehaztapenetatik ateratako BOW35 berokuntza-potentzia.

– G1 kasua: ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu irekian, eraikin baterako: Gehieneko kostu hautagarria (€) = $1.600 * P^{(0,83)}$.

– G2 kasua: ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu itxian truke bertikalarekin, zundaketekin, eraikin baterako: Gehieneko kostu hautagarria (€) = $4.000 * P^{(0,83)}$.

– GR1 kasua: ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu irekian, beroa edota hotza zentralizatuta sortzeko, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diona: Gehieneko kostu hautagarria (€) = $2.600 * P^{(0,83)}$.

– GR2 kasua: ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu itxian, beroa edota hotza zentralizatuta sortzeko, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diona: Gehieneko kostu hautagarria (€) = $5.000 * P^{(0,83)}$.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2.3 azpimota *Energia konbentzionalaren ordeztasuna biomasa jartzea instalazio termikoetan*

1. *Helburua*. Dauden eraikinetako energia konbentzionalen kontsumoa murriztea biomasa erregai gisa erabiliz honako erabilera hauetarako: berokuntza, klimatizazioa eta etxeko ur beroa, eta igerilekuen klimatizazioa.

2. *Jarduketa diruz lagungarriak*. Jarduketa diruz lagungarriak izango dira berokuntzako, klimatizazioko, etxeko ur beroko eta igerilekuen klimatizazioko instalazioetan egindakoak, keak/ura trukatzeko sistemak barnean hartzen dituztenak eta eraikinetan dauden energia konbentzionalen instalazioak ordeztatzeko dituztenak, bero- eta/edo hotz-sareetako edo sare horiek zabaltzeko inbertsioak barne. Instalazio bat bero-sareetako jarduketa bati lotuta dagoela ulertuko da, teknologia berriztagarri bat edo batzuk erabiliz, gutxienez bi zentro kontsumitzaile energiaz hornitzen dituenean, dagozkion truke-geltokien bitartez. Diruz lagungarritzat hartzen dira, halaber, toki-berokuntzako aparatuak, hau da, espazioak berotzeko gailuak, zuzenean transferentzia bidez bakarrik edo beroa fluido bati transferituz ere beroa ematen dutenak, produktua kokatua dagoen toki itxian gizakiontzat atsegina den tenperatura bat lortzeko eta mantentzeko helburuarekin, beste espazio batzuetarako beroa sortzeko aukera ere emanez, eta sorgailu batez edo gehiagoz hornituz, aurrealdea itxia izanik erregai solidoak zuzenean bero bihurtzeko gauza direnak.

Biomasa-instalazioek betekizun hauek bete beharko dituzte, eta proiektuan edo memoria teknikoan justifikatu beharko dira:

- a) Egindako instalazioek Eraikinetako instalazio termikoen erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- b) Biomasa-instalazioek berotegi-efektuko gas-emisioak gutxienez % 80 murriztea lortu beharko dute, «Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea» % 100 izan dadin, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021/241 (EB) Erregelamenduan VI. eranskinak ezarritakoa betez.

Horregatik aurkeztu beharko da, berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari dagokionez, erabiliko diren erregai guztiaren balio lehenetsia % 80 edo handiagoa dela dioen adierazpena, iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren VI. eranskinean beroa sortzeko adierazitako araberako, produkzio-sistema eta balio lehenetsi hori osatzen duten gainerako baldintzak kontuan hartuz, erregaiaren edo erregaien deskribapena eta balio lehenetsiak adierazita.

Erabiliko diren erregaietako batek aurreko betekizun hori betetzen ez badu, eskumeneko teknikari independente batek sinatutako memoria bat aurkeztuko da, non justifikatuko den, proiekturako aurreikusitako baldintzak aintzat hartuz eta VI. eranskin horretan jasotako metodologiarekin bat etorritik, erregai horretarako berotegi-efektuko gasen murrizketa % 80 edo handiagoa dela.

- c) Toki-berokuntzako aparatuak edo MW 1etik beherako galdarak biltzen dituzten jarduketek honako hauek bete beharko dituzte:

– Eskaeran jasotako dokumentazio teknikoarekin batera, UNE-EN-ISO 17225 arauaren, UNE 164003 arauaren edo UNE 164004 arauaren arabera erabili beharreko erregaiari buruzko informazioa.

– Ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztea, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen 2015/1185 (EB) Erregelamenduan edo Batzordearen 2015/1189 (EB) Erregelamenduan artean dagokiona) definitutakoak baino exijentzia-maila txikiagokoak.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

– 4.1 oinarrian ezarritako betebeharrak eskakizun gehigarri gisa, onuradunak neurri honetarako adierazpen bat aurkeztu beharko du 5 urtez dokumentu-erregistro nahikoa atxikitzeko konpromisoa hartuz, galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela akreditatzea ahalbidetuko duena, A1 klasearen betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren 1. klaseari buruzkoa, 164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo 164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa.

– Azkenean instalatutako ekipoak ez badira eskaeran jakinarazi ziren berdinak, behin betiko instalatutako ekiporako egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioarekin batera, fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztu beharko dute, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen 2015/1185 (EB) Erregelamenduaren edo Batzordearen 2015/1189 (EB) Erregelamenduaren artean dagokiona) definitutakoak baino exijentzia-maila txikiagoak.

d) MW 1eko edo gehiagoko instalazioek, eskaeran jasotako dokumentazio teknikoarekin batera, UNE-EN-ISO 17225 arauaren, UNE 164003 arauaren edo UNE 164004 arauaren arabera erabili beharreko erregaiari buruzko informazioa aurkeztu beharko dute, edo deskribatu beharko dira arau horietan jasotako erregai bat ez bada.

MW 1etik 50 MW-ra bitarteko instalazioetatik eratorritako emisioek bete egin beharko dituzte, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duen errekontza-instalazio ertainetatik eratorritako agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako emisioak mugatzeari buruzko abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuan ezarritako emisio-betekizunak, baita Estatuan haiei aplikatzekoa den legeria oro ere.

Biomasak bete egingo ditu energia berriztagarriei buruzko 2018/2001 Zuzentarauaren 29.-31. artikuluetan ezarritako jasangarritasun-irizpideak, baita dagozkion egintza eskuordetuak eta egikaritzekoak ere, Zuzentaru horren transposizioari buruzko Errege Dekretua aplikatuz, eta erabilera termikoen eremuan jasangarritasun-betekizunak betetzeko betebeharra garatzeko ezar litezkeen xedapenak betez.

3. *Laguntzen zenbatekoa.* Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarriko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren muga mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarriko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskinen 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarriko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, Oinarri hauetako I. eranskinen kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehuneko bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratuko edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 10	% 0	% 0	% 0	% 15
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 15

Jarduketa honi egokituko zaion laguntza kalkulatzeari begira, gehieneko kostu hautagarri bat ezarriko da, kasuaren araberrako ondorengo adierazpenen ondoriozkoa, non P (kW) sorgailuaren potentzia termikoa den:

- A1 kasua: toki-berokuntzako aparatuak. Gehieneko kostu hautagarria (€) =400 x P.
- B1 kasua: ur beroa sortzeko edota berokuntzako instalazioak eraikin batean. Gehieneko kostu hautagarria (€) =880 x P^(0,87).
- B2 kasua: ur beroa sortzeko edota berokuntzako eta hozketako instalazioak eraikin batean. Gehieneko kostu hautagarria (€) =1.540 x P^(0,87).
- BR1 kasua: beroa sortzeko instalazio zentralizatuak, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diena. Gehieneko kostu hautagarria (€) =1.250 x P^(0,87).
- BR2 kasua: Beroa eta hotza sortzeko instalazio zentralizatuak, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diena. Gehieneko kostu hautagarria (€) =2.124 x P^(0,87).
- BR3 kasua: beroa sortzeko instalazio zentralizatuak, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, baita hotz-produkzio deszentralizatu ere (energia berriztagarriak hornitu behar du hotz-produkzio deszentralizatu), zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diena. Gehieneko kostu hautagarria (€) =2.374 x P^(0,87).

Bero- edo hotz-sareak zabaltzeko gehieneko kostu hautagarriak ez dira barnean hartu. Bero-sareen kasuan, 100.000 eurotik 5.000.000 eurora bitarteko inbertsioa dakarten proiektuak izango dira diruz lagungarriak.

2.4 azpimota 2.1 azpimotatik 2.3 azpimotara bitartekoetan sartzen ez diren sorkuntza-sistemen energia-efizientzia hobetzea.

1. *Helburua.* Dauden etxebizitzetako instalazio termikoetako berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko, etxeko ur beroaren produkzioko eta igerilekuen klimatizazioko energia-konsumoa murriztea, 2.1-2.3 tarteko idatz-zatietan barne hartu gabeko sorkuntza-azpisteman egindako jarduketaren bidez.

2. *Jarduketa diruz lagungarriak.* Jarduketa diruz lagungarritzat hartuko dira berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko eta etxeko ur beroaren produkzioko instalazio termikoetan egindakoak, baita igerilekuen klimatizazioa ere.

Berritzen den instalazio termikoak bete beharreko energia-efizientziako gutxieneko eskakizunak, indarreko Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan jasotakoak dira, eta proiektuan edo memoria teknikoan justifikatu beharko dira.



Besteak beste, honako hauek izango dira energia-jarduketa diruz lagungarriak:

a) Sorkuntza termikoko sistemak, egungo sorkuntza termikoko ekipoak ordeztzea dakarten energia-efizientzia handiko aerotermino eta hidrotermiko soluzioak, berokuntzako, klimatizazioko eta etxeko ur beroa produzitzeko instalazio termikoetan energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen dutenak.

«Lehenetsitakoak» ez diren eraikinaren efizientzia-ziurtagiria egiteko teknikari eskudunak erabilitako errendimendu-balio guztiak (SEER, SCOP, eta abar) honela justifikatu beharko dira: hautatutako balioa «zenbatetsia» edo «ezaguna» bada, CE ikurra edo fitxa tekniko edo etiketa energetikoa edo EUROVENT ziurtagiria edo antzekoa aurkeztu beharko du, eta, edozein kasutan ere, ziurtagirian erabilitako balioak jasotzen dituen dokumentua ere aurkeztu beharko da.

b) Aireztapen naturaleko eta bortxatuko sistemak.

c) Kanpo-aire bidezko doako hozte-sistemak.

d) Beroa eta erauzketa-areia berreskuratzeko sistemak, eta hondar-energien aprobetxamendua.

e) Instalazioaren energia-kontsumoa murrizten duten lurruntze-teknikak erabiltzen dituzten sistemak: lurrun bidezko hoztea, lurrun bidezko kondentsazioa, kondentsazio-areia lurrun bidez aurre-hoztea, lurrun bidezko zuzeneko edo zeharkako hoztea erauzketa-arearen beroa berreskuratu baino lehen eta abar.

Ez da kostu hautagarritzat hartuko sorgailu termiko bat jatorri fosileko erregaia erabiltzen duen beste batekin ordeztzea.

3. *Laguntzen zenbatekoa.* Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskineko 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, Oinarri hauetako I. eranskinean kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 5
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 5



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2.5 azpitipologia Instalazio termikoetako banaketako, erregulazioko, kontroleko eta emisioko azpisistemen energia-efizientziaren hobekuntza.

1. *Helburua.* Dauden etxebizitzetako instalazio termikoetako berokuntzako, klimatizazioko, airez-tapeneko, etxeko ur beroaren produkzioko eta igerilekuen klimatizazioko energia-kontsumoa murriztea, banaketako, erregulazioko, kontroleko eta emisioko jarduketek bidez.

2. *Jarduketa diruz lagungarriak.* Jarduketa diruz lagungarriak izango dira berokuntzako, klimatizazioko, airez-tapeneko eta etxeko ur beroaren produkzioko instalazio termikoetan egindakoak, baita igerilekuen klimatizazioa ere.

Berritzen den instalazio termikoak bete beharreko energia-efizientziako gutxienezko eskakizunak, indarreko Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan jasotakoak dira, eta proiektuan edo memoria teknikoan justifikatu beharko dira.

Besteak beste, honako hauek izango dira energia-jarduketa diruz lagungarriak:

a) D1 kasua: eraikinetako instalazio termikoetan energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen duten jarduketa guztiak, banaketa-sistemi, erregulazio- eta kontrol-sistemi, elementu terminalei eta abarri dagokienez, eta jarduketa horien artean bilduta daude izaera orientatiboarekin eta ez-mugatzailearekin zerrendatzen direnak:

– Zenbait faktorearen arabera energia aurrezten duten ekipo edota instalazioetako kontrol- eta erregulazio-sistemak, hala nola kanpo-tenperaturaren aldaketa, presentzia edo erabiltzailearen premiak.

– Bereziki, energia-jarduketa diruz lagungarritzat hartuko dira bitarteko digitalen bidezko elementuen urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetzen duten elementuak, honako instalazio hauetarako, besteak beste:

- Eraikineko toldoen, pertsianen edo gortinen kontrol automatikoko sistemak, eguzki-argiaren aprobetxamendu optimoa ahalbidetuko dutenak.
- Klimatizazioaren erregulazio-sistemak, eraikinaren tenperatura kanpo-tenperaturaren, eguneko orduaren, gunearen edo pertsonen presentziaren arabera egokituko dutenak.
- Etxetresna elektrikoak programatzeko eta abiarazteko urrutiko kontroleko edo kontrol automatikoko sistemak.
- Klimatizazio-sistemen energiaren behar ez bezalako erabilera posibleez ohartarazten diguten leihoen irekiera eta itxiera detektatzeko sistema.

AENOR EA0026:2006 Etxebizitzetako sistema domotikoen instalazioak ziurtagiria daukaten jarduketak hartuko dira halakotzat, bereziki.

– Eraikinetako etxeko ur beroa hornitzeko kudeaketa elektronikoko sistemak, etxeko ur beroaren eta energiaren kontsumoa kontrolatzea, uneko gehieneko emaria mugatzea, gehieneko erabilera bolumena kontrolatzea eta etxebizitza edota egoitza bakoitzeko hornidura-mozketa ere kontrolatzea ahalbidetuko dutenak.

– Kontsumo-puntuan etxeko ur beroa kontrolatzeko eta kudeatzeko kanilak, tenperaturaren eta emariaren erregulazio optimoa eta bizkorra ahalbidetuko dutenak, eta erabiltzaileak zuzenean kontrolatu ahalko dituenak, eta, aldi berean, sistema elektronikoen bidez kontrolatzekoak, uneko kontsumoa, irteera-tenperatura eta kanila horien gehieneko kontsumo bolumena kudeatzeko eta kontrolatzeko. Sistema horiek sistema domotiko edo imotiko batean integratzea kontuan hartuko da jarduketetan, integrazio horrek sistema guztien arteko komunikazioa ahalbidetuko duelarik, sistemek beren artean elkar eragin dezaten eta bertatik edo urrutetik kontrolatuak izan daitezten.

– Balbula termostatik mekaniko edo elektronikoa UNE-EN-215 araua betetzen duten emisoreetarako bero-ekarpena erregulatzeko.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

b) D2 kasua: diruz lagungarritzat hartuko dira, halaber, energiaren monitorizazio-sistemak, denbora errealekoak edo geroratutakoak, kontsumoaren informazioa erabiltzaileen beren dispositibo digitalen bidez helaraztea ahalbidetuko dutenak. Barnean hartu ahalko dituen prestazioen artean energia-kontsumo garrantzitsuenen (argiztapena, klimatizazioa, etxeko ur beroa, etxetresna elektrikoa, eta abar) banakapena dago, eta horrekin batera, kontsumo-datuak edo energia sortzearekin lotutakoak gordetzea ondoren erabiltzaileak edo erabiltzaileak baimentzen duen pertsonak kontsulta ditzan, eta dispositibo bateragarriekin gauzatutako komunikazioa, estatistiken kontsulta eta abar. Kontsumo-datuak balio energetikotan zein balio ekonomikotan eta karbono dioxidoko emisiotan agertu ahalko dira.

3. *Laguntzen zenbatekoa.* Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren muga mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskineko 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, Oinarri hauetako I. eranskinean kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letrako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 5
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 5

3) Laguntza Gehigarria D2 kasurako. Instalazioari dagokion kostu hautagarriari ez zaio aurreko 2. idatz-zatia aplikagarria izango, D2 kasuan definitutakoari jarraikiz.⁹

3. jarduketa tipologia. Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea

1. *Helburua.* Dauden eraikinetako argiztapen-instalazioetan energia-kontsumoa murriztea.

2. *Jarduketa diruz lagungarriak.* Jarduketa diruz lagungarritzat hartuko dira etxebizitzako bizitegi tipologia kolektiboko eraikinetako eta beste edozein erabileratako eraikinetako gunen erkideetako argiztapen-instalazioetako energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen dutenak, 4.2.(i) oinarriaren b) eta c) letratan barne hartutakoak, eta jarduketa horien artean bilduta daude izaera orientatiboarekin eta ez-mugatzailerekin zerrendatzen direnak:

a) Luminariak, lanparak eta ekipoa: multzoaren orde z errendimendu handiagoko luminariak, efizientzia handiagoko lanparak eta erreaktantzia elektronikoko erregulagarriak eta argiztapenean



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

instalaturako potentzia murriztea ahalbidetzen dutenak jartzea, araututako kalitateko eta konfort bisualeko eskakizunak beteta.

b) Bertako kontrola, urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetzen duten sistema eta elementuak, argiztapen-maila pizteko eta erregulatzeko bitartekoen bidez: presentziaren arabera, eraikineko guneen arabera, edo argi naturalaren ekarpenak ezarritako argiztapen-mailaren erregulazioaren arabera kontrol-sistemak edukiko dituzte.

c) Argiztapen-sistemaren aldaketa: argi-puntuak birkokatzea aurreko teknologiak erabilita, urteko kontsumo elektrikoa egungo argiztapen-sistemarekiko murrizteko moduan.

d) Urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetuko duten sistemak eta elementuak, kontrolatzera bideratutako instalazioen bitarteko digitalen bidez:

- Argiztapen-sistema eraginkorrak, argiztapena une bakoitzeko premietara egokituta.
- Eraikineko toldoen, persianen edo gortinen kontrol automatikoko sistemak, eguzki-argiaren aprobetxamendu optimoa ahalbidetuko dutenak.
- Eraikinen argiztapena pizteko eta itzaltzeko kontrol automatikoko sistemak.

AENOR EA0026:2006 Etxebizitzetako sistema domotikoen instalazioak ziurtagiria daukaten jarduketak hartuko dira halakotzat, bereziki.

e) Monitorizazio-sistemak ezartzea, edozein unetan konfort-baldintzak zein diren eta energia-efizientzia hobetzearen alde egindako jarduketek egokitasuna zein den jakitea ahalbidetuko digutenak.

Birgaitzen den argiztapen-instalazioak bete behar dituen energia-efizientziako gutxieneko eskakizunak Eraikingintzaren Korde Teknikoak HE-3-Argiztapen instalazioen energia-efizientzia dokumentuan jasotakoak dira.

3. *Laguntzen zenbatekoa.* Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahaliko litzaikeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Laguntzaren intentsitatea, I. eranskineko 2. ataleko taulan ezarritakoa izango da.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahal da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, Oinarri hauetako I. eranskinean kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahal da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letrako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikineren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 5
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 5



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

2. Kostu hautagarriak

Hautagarritzat hartzen dira programa honen helburu energetikoak lortzeko beharrezkoak direnak, aurreko jarduketa tipologia bakoitzerako adierazitakoak eta ondoren zerrendatzen direnak:

a) Ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan eta otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan eta haren ondorengo edozein aldaketatan aurreikusitako energia-efizientziako ziurtagiria teknikari eskudunak egin dezan ordaindutako ordainsari profesionalak.

b) Laguntza-eskaeraren kudeaketa-kostuak.

c) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu teknikoaren idazkuntzaren kostuak.

d) Jarduketan zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.

e) Obren edota instalazioen egikaritzapen-kostuak.

f) Ekipotan eta materialetan egindako inbertsioa.

g) Laguntzen eskaerako eta justifikaziorako eskatutako txostenen eta gainerako dokumentazioaren idazkuntza-kostuak.

h) Jarduketak egitearen justifikazioaren kudeaketa-kostuak.

i) Justifikazio-kontuari buruzko auditorearen txostena.

j) Laguntzako jarduketak behar bezala egin direla akreditatzen duen txostena, kontrol-erakunde edo kontrol-entitate batek emandakoa.

k) Jarduketa tipologia bakoitzaren beste beharrezko partida (osagarriak edo ez) espezifiko batzuk.

l) Jarduketa dela-eta, amiantoaren erakuntza-produktuak erretiratu behar direnean. Amiantoaren esposiziopean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiokeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuak ezarritako baldintzak betez kendu beharko dira produktu horiek. Prozesuan sortutako hondakinak kudeatzeko, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazitakoa hartu beharko da aintzat.

m) Trantsiziorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak argitaratutako «Ingurumenari ale esanguratsurik ez egiteko printzipioarekin bat datozen jarduketak diseinatu eta garatzeko gidaren» irizpideak betetzeko neurri zuzentzaileak ezartzeko kostuak.

Ez dira kostu hautagarritzat hartzen lizentziak, tasak, zergak edo tributuak. Dena den, BEZA hautagarritzat hartu ahalko da, betiere ezin badira berreskuratu edo osorik edo partzialki ezin bada konpensatu.

Horri begira, laguntzaren eskaerako kudeaketa-kostutzat hartuko dira laguntzaren eskatzaileak edo azken hartzaileak kudeaketa administratibo eta dokumentala burutzeagatik enpresa edo profesional bati ordaindu ahalko lizikiokeen gastuak, eta, hori horrela, gastu horiek kostu hautagarritzat onartuak izateko, behar bezala jasota eta zehaztuta egongo dira dagokion enpresaburuarekin edo profesionalarekin formalizatutako dokumentuan edo beste kontratu bidezko eskaintza lotesle batean, eta horren kopia II. eranskinean xedatutakoari jarraikiz laguntza-eskaerarekin batera joan behar duen dokumentazioarekin batera joango da, gastu horien errealitatea justifikatuz II. eranskinean ezarritakoaren arabera, faktura independentea aurkeztuta, zeinean gastu horiek behar bezala zehaztuta jasoko diren, gastu horien ordainketa justifikatzeko eska daitezkeen

2021eko azaroaren 4a, osteguna



dokumentazioaz gain. Ez da ezein kasutan onartuko kudeaketa-gastu horiek eskatutako laguntzaren zenbatekoaren % 4 gaindi dezatela, espediente bakoitzeko 3.000 euroko mugarekin.

Era berean, eta horri dagokionez, laguntzako jarduketak egin izanaren justifikazioaren kudeaketa-gastutzat hartuko dira proiektua osatzen duten jarduketak egin izana organo instruktoareari justifikatzeko kudeaketa teknikoa, administratiboa eta dokumentala burutzeagatik enpresei edo profesionali ordaindu ahalko lizkiekeen gastuak.

Gastuak ordaintzeko programan onartutako gehieneko kostu hautagarri totala:

- a) Jarduketak behar bezala egin direla akreditatzen duen txostena egitearen ondoriozkoak, kontrol-erakunde edo kontrol-entitate batek emandakoa,
- b) jarduketak egitearen justifikazioaren kudeaketaren ondoriozkoak eta
- c) proiektuaren justifikazio-kontuari buruzko auditorearen txostena lantzeari buruzkoak.

Ezin izango du osorik eskatutako laguntzaren zenbatekoaren ehuneko zazpi gaintitu, espediente bakoitzeko 7.000 euroko mugarekin. Zerbitzu horien burutzapena eta fakturazioa, justifikazio-dokumentazioa aurkezteko emandako aldian egin ahalko da.

Ez da hautagarritzat hartuko aurrekoak ez bezalako ezein kostu, ezta laguntzaren azken hartzaileari programa hau indarrean hasten den data baino lehen fakturatu zaion ezein kostu ere, 4.5 Oinarrian adierazitakoak izan ezik.

Erronka demografikoko udalerrietan energia birgaitzeko jarduketak egiteko ekimena sustatu eta kudeatzeko jabeen erkidegoak edo bestelako eraikin-jabeak ordezkatzuz jarduten dutenean 2.1.(ii) Oinarrian aipatutako entitateek egindako kudeaketa-gastuen kostua hautagarritzat joko da, % 100ean.